

Año LXXIX. urtea

271 - 2018

Mayo-agosto

Maiatza-abuztua



Príncipe de Viana

SEPARATA

**Etxarri Aranazko
Klaberiako liburua:
eliza fundazio zenbait,
herriko sorrera-dokumentua
eta hamarrenaren nondik
norakoak**

Jose Luis ERDOZIA MAULEON

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXIX · n.º 271 · mayo-agosto de 2018
LXXIX. urtea · 271. zk. · 2018ko maiatza-abuztua

ARTE

- Del Barroco al academicismo: la sacristía «nueva» de Larraga como ejemplo de transición
Igor Cacho Ugalde 397
-
- Un cartón de Antonio González Ruiz (1711-1788) siguiendo modelos de David Teniers II
Tomás Sáenz de Haro 423
-
- Ricardo Tejedor, dibujante y pintor
José M.^a Muruzábal del Solar 437
-
- Fotografía *amateur* navarra. La contribución de Jesús Martínez Gorraiz
Ricardo Gurbindo Gil 465
-

HISTORIA

- De *Oiasso* a *Huarcha*: testimonios sobre un puerto medieval en el Bidasoa
Iñigo Ruiz Arzalluz 505
-
- La frontera de Navarra durante el reinado de Carlos II.
La acción virreinal y el problema de la defensa
Antonio Espino López 527
-
- Asambleas y magistraturas en Tafalla a finales de la Edad Media (1423-1509)
Mikel Ursua Lizarbe 553
-
- El precio de la paz. Conflictos fronterizos entre Aragón y Navarra en tiempos de Fernando el Católico (1490-1512)
Jaime Elipe 573
-

Sumario / Aurkibidea

Etxarri Aranazko Klaberiako liburua: eliza fundazio zenbait, herriko sorrera-dokumentua eta hamarrenaren nondik norakoak Jose Luis Erdozia Mauleon	591
Un estudio sobre una familia carlista de Pamplona durante la Guerra Civil: los Cabañas Mecoleta Juan Cruz Alli Aranguren	633
El trazado del Camino de Santiago entre Puente la Reina y Logroño y la preservación del patrimonio histórico Fernando Vega López	695
 MÚSICA/MUSIKA	
La recepción de Miguel Echeveste Arrieta (1893-1962) como concertista de órgano Raúl del Toro Sola	715
 SOCIOLINGÜÍSTICA/SOZIOLINGUISTIKA	
Nuevos consensos sociales plurales para el fomento de la lengua vasca en Navarra Xabier Erize Etxegarai	741
Currículums	779
Analytic Summary	783
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	787

Etxarri Aranazko Klaberiako liburua: eliza fundazio zenbait, herriko sorrera-dokumentua eta hamarrenaren nondik norakoak

Libro de la Clavería de Etxarri Aranatz: fundaciones religiosas, documento de fundación de la villa y diferentes modos de dezmar

The book of Claveria from Etxarri Aranatz: religious foundations, document of foundation of the village and system of tithing

Jose Luis ERDOZIA MAULEON

Geografía eta Historian lizentziaduna eta Euskal filologian doktorea

erdoziamaleon@gmail.com

Jasotze data: 2018/07/23. Behin-behineko data: 2018/08/31. Behin betiko data: 2018/09/18.

LABURPENA

Artikulu honetan Etxarri Aranazko udal artxiboan larruzko azala duen liburu baten edukia aztertu da. Klaberriako liburuak da eta izenburuan jasotzen den moduan, bertan ageri dira kapilautzak eta beste eliza fundazioak, Arañaz lurraldeko hamarrenak nola eta noiz jasotzen ziren zehazten duten dokumentuak eta baita Etxarri Aranatz herriaren sorrerako dokumentuaren eskuz egindako kopia bat. Dokumentu horiek transkribatu, datuak aztertu liburuan bertan ageri diren gaien araberrako hiru multzo nagusitan (kapilautzak, herriaren sorrera-dokumentua eta hamarrenak), eta amaieran ondorio zenbait atera dira, beste datu esanguratsu batzuekin batera. Bertan ageri diren dokumentu gehienak XVII. eta XVIII. mendekoak dira.

Gako hitzak: klaberria; kabilido; kapilautza; urteurrena; hamarrena; sorrera dokumentua.

RESUMEN

En este artículo el autor ha examinado el contenido de un libro encuadernado en piel del archivo municipal de Etxarri Aranatz. Se trata de un libro de clavería y como dice el propio título del artículo, en él se encuentran recogidas capellanías y fundaciones religiosas, el modo de dezmar en el Valle de Arañaz e incluso una copia manuscrita del documento de fundación de Etxarri Aranatz. Después de transcribir el contenido del libro y analizar sus datos agrupados en tres temas principales (capellanías, documento de fundación de la villa y diezmos), el autor cierra el artículo con algunos datos curiosos y otras conclusiones. La mayoría de los documentos del libro son de los siglos XVII y XVIII.

Palabras clave: clavería; kabilido; capellanía; aniversario; diezmo; documento fundacional.

ABSTRACT

In this article, the author has examined the contents of a leather-bound book in the municipal archive of Etxarri Aranatz. It is a book of «claveria» and as the title of the article says, it collects chaplaincies and religious foundations, the way to tithe in the Valley of Arañaz and even a handwritten copy of the foundation document of Etxarri Aranatz. After the transcription and through analysis of the book's contents, grouped around three main themes (chaplaincies, document of foundation and tithes), the author concludes the article with some unusual and interesting facts. Most of the documents in the book date from 12th and 13th centuries.

Keywords: «claveria»; «kabilido»; chaplaincy; anniversary; tithe foundation document.

1. SARRERA. 2. LIBURUAREN EZAUGARRIAK ETA DESKRIBAPENA. 3. DOKUMENTUAREN GORPUTZ EDO EDUKIA. 3.1. Orri zenbatuen aurrekoa eta beste batzuk: kapilautzak. 3.2. Orri zenbatuak: Etxarri Aranatz herriaren sorrera-dokumentua 3.3. Hamarrenari buruzkoak 4. DOKUMENTUKO ZENBAIT DATU ESANGURATSU 4.1. Etxeen izenak. 4.2. Toponimo eta baselizak. 4.3. 1683ko eta 1697ko dokumentuetako izenak, 1694ko auzikoak eta XVII-XVIII mendeetako eliza-fundazioetakoak. 5. ZENBAIT ONDORIO. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Etxarri Aranatz Nafarroako mendebalde betean dago, Arakil ibaiaren ibarraren erdialdean, Aralarko mendikatea iparraldetik eta Urbasakoa hegoaldetik dituela. Burundako Bakaiku herria du mugakide mendebaldetik, Arbizu ekialdetik eta Lizarraga hego-ekialdetik.

XIII. mendearen hasieran sortu zen Nafarroako erregea zen Luis I.a Hutin-ek, 1312ko irailaren 17an, emandako pribilegioaren bitartez. Aranatz Haraneko herrixkak hustu eta Etxarri Aranatzera bizitzera joateko agindua eman zien aranaztarrei. Ordurako Gaztelako Erresumaren agindupean ziren Araba eta Gipuzkoa aldetik behin eta berriz suertatzen ziren erasoak ekiditeko neurria izan zen Etxarri Aranatzaren sorrera. Babesleku edo gotorleku bezala sortu zen (gaztelaniaz ‘fortaleza’, ‘baluarte’ edo ‘bastida’), orduan, eta 1314.eko martxoaren 15ean, Villierseko Enguerrandek Etxarri Aranazko biztanleen eskubideak eta betebeharrak zehaztu zituen.

Hasiera hartan, esan daiteke Etxarri Aranatz zela Aranatz Haraneko buru (Arañazko Elkartearen hasieratako eman daitezkeen urteetan ere Etxarri Aranazko alkatea zen Domingo de Ugarte ageri da Arabako Adanan su-etena edo ituna sinatzen Agurain eta Lazkaoko jauntxoekin, Lakuntza, Arbizu eta Aranaz Lurraldearen izenean 1388an) (AGN, 1388), bai maila politiko-administratiboan, bai erlijiosoan ere. Eta horrela jarraitu zuen mendeetan azken maila honi dagokionez, artikuluan bertan ezagutuko dugun hamarrena jasotzeko araudiak erakusten duen bezala. Maila politiko-administratiboari dagokionez, berriz, XVI. mendearen hasieratik bertatik hasi ziren Ergoiena eta Arbizu

haien «burujabetasuna» aldarrikatu eta eraikitzen, baina Arañaz Elkartean jarraitu zuten haxe desegin zen arte 1874an.¹

Ergoienaren kasuan, 1504an agertzen da Etxarri Aranatzengandik bereizitako udal moduan, orduko Nafarroako errege-erregina ziren Juanek eta Katalinak, hiru herrietako gobernuaren eta justiziaren ardura izanzen zuen alkate propioa izateko aukera eman zieten Unanuko, Dorraoko eta Lizarragako auzoei. Badirudi populazioaren hazkundera eta Elizaren aldetiko oniritzia izan zirela lagungarri «burujabetasuna» lortzeko garaian. Hala ere, lehenago esan dudana moduan, erlijioaren gaitan, Etxarri Aranazko Santa Maria elizaren mendean jarraituko zuten. Idoatek (1956, 301-303. orr.) dio 1500 urtean libratu zituztela aipatu Nafarroako erregeek ergoieendarrak Etxarri Aranatzetikiko menpekotasun politiko-administatibotik, alkate propioa, almirantea eta lau erregidore izateko aukera eman zieten ergoieendarrei.

Arbizuri dagokionean, aldiz, mende bereko laugarren hamarkadan (1533-1537) zehaztu zen herriaren eremua, lau urte iraun zuen auzi baten ondoren.

2. LIBURUAREN EZAUGARRIAK ETA DESKRIBAPENA

Klaberiako liburu honek larruzko azala du eta Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan 419-1 zenbakiarekin dago ondorengo izenburuarekin azalean: *Libro de la Clavería de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades*.

Liburuaren edukia zehatz-mehatz ezagutu nahi duenarendako, Udalaren web orrian eskegiko da, ahalik eta lasterren, neronek egindako 76 orrialdeko transkripzioa. Liburuaren gaur egungo ordena jarraiturik traskribatu ditut bertan idatzita dauden dokumentuak, baina liburuaren beraren orrien zenbaketari garrantzia emanez. Soilik 40 orri ageri dira zenbaturik alde batetik bakarrik eta horrek pentsarazten dit horietatik hasi zutela jatorrian liburu eta ondoren erantsi zizkiotela aurreko beste 25 orri inolako zenbaketarik gabe. Harrigarria bada ere, ondorengo orri asko eta asko hutsik daude erabat, tartean beste 12 osorik edo zertxobait idatzita, eta azken hauek guztiak jarraian, bata bestearen atzetik. Eta hauen atzetik ere, beste bost orri huts tartekaturik, atzera berriz, zenbait orri idatzirik ageri dira.

Argi dago, hizpide dugun liburuaren edukiaren kasuan, hein handi batean bederen, Espainiako Erret-akademiak Mexikorako ematen duen azalpenarekin² bat egiten duela, hau da, kapilautzek, urteurrenek, eliza fundazioek eta hamarrenaren bilketak berak ematen zuten errenten berri zehatza ematen digula Etxarri Aranazko klaberiako liburu honek.

1 Etxarri Aranazko artxibotik ateratako dokumentuan jarzen duen data erabili dut: leg. 32, Año de 1874 (7 de Nobre) («Comprende la copia», 1874).

2 Clavería 2. f. Méx. En las catedrales, oficina que entiende en la recaudación y distribución de las rentas del cabildo. Clavero, -ra 2. m. En algunas órdenes militares, caballero que tenía cierta dignidad y a cuyo cargo estaba la custodia y defensa del principal castillo o convento (RAE, d. g.).



1. irudia: Etxarri Aranazko Klaberia liburua.

Klabetriaren definizioan ageri den «cabildo» hitza hobeki ulertzeko, Goñi Gaztambideren definizioa baliatuko dut (2008, 593. orr.). Honek Iruñeko katedralekoa zer den adierazten du eta lau aldi bereizten ditu hasieratik, XI. mendetik, XX. mendera («secular», XI. mendea; «regular», 1086-1860; «concordatario», 1860-1983; «posconciliar», 1983tik aurrera). Kanonigoen Kabildoak kleriko edo elizgizonen taldea da eta bere zeregina, Jainkoari kultu edo gurtzarik gorena eskaintzea da. Honez gainera, mendeetan zehar apezpikuaren aholkularitza organo ere izan dira eta apezpikurik izan ez denean («sede vacante»), diozesiaren ardura bere gain hartu izan du kabildoak.

Jiménez Gutiérrez historialariak (1992, 13. orr.) XIV. mendeko Iruñeko kabildoak aztertu zuen eta, distantzia eta maila kontuan hartuta, esan daiteke Etxarri Aranazko kabildoan ere, jarraian aipatu historialariak ateratako ondorioetako batzuk (estamentu pribilegiatuetakoak dira gehienak, kanonigoen leinuak sortu ziren kabildoetan, kideen formakuntza eta hauen eskubideen defentsa korporatiboa –artikuluan bertan ageri den 1697ko

dokumentuko hikamika irakurtzea besterik ez dago...) errepikatzen direla, artikuluan zehar ikusiko ditugun hainbat ataltxoetan (kapilautzak, hamarrenak...) ondoriozta daitekeen moduan. Karrera profesionaletako har daiteke, beraz, kabilidoko kide izatearena garai horietan. Historialari berak (1992, 1. orr.) lanaren hasieran dio bi alde dituela kabilidoak: oinarri ideologiko-doktrinalak eta hauen gauzatzea eta eragina eguneroko bizitzan (aplikazio praktikoa), batetik; eta, bestetik, alde juridiko-instituzionala, taldearen osaketan eta ibilbidean eragin zuzena duena, beste erakundeekiko harremanak (artzapezpikutzatza, koroa, gorteak...) arautzen dituen, taldearen iraupenerako azpiegitura ekonomikoa bideratzen duena eta, azkenik, eragin sozio-politikoko talde bezala agertzen dena.

Gurean, hauxe da, laburbildurik, liburuaren edukia (parentesi artekoak, zenbakirik gabe):

1. taula: Etxarri Aranazko Klaberiako liburuaren edukia

(1-24) orriak	«Prim(eram)te Los papeles sueltos que están antes de lo foliado...».
1-34 orriak	1-16 [*] : Sorrera dokumentua; 17 aurki: F. de Echalecuren adierazpena; 17 binper-26: «Razon de las Capellanias y fundaciones que ay en la Parroquia N(ues)t(r)a S(eño)ra en la Villa de Echarri Arañaz (1749-12-12)»; 27-31: «Forma y estilo de recoger y repartir los Diezmos de esta villa de Echarri Arañaz»; 32-34: «Modo de Dezmar por la Cría así de ganados mayores como de los menores».
(1-14) orriak	1694ko epaia.
35-40 orriak	1754-1796 urteetako hamarrenaren banaketa, beste zenbait bitxikerirekin batera. (Lehen hiru orriak hutsik).
(1-84) orriak	Hutsik guztiak.
(85) orria	«Razon y resumen de los Papeles que contiene este libro junto con la razon en donde se (h)allan al presente este año de 1763, los censos de las capellanias y fundaciones de esta Parroquia» (Aurkibidea).
(86-93) orriak	Hutsik
(94 binper) orria	«Entre en la Cofradía de San Pedro (?)vincula** de los Sacerdotes del Valle de Aranaz el día 9 de Setiembre de 1766 y fui Prior el año de 1781. La San Juanada o diezmo para el Clavero del Lino toco a cada Beneficio dos d(inero)s y pico el cura y io bendimus en 8 d(inero)s y medio, en Elcorri bendimus a la Ama del Abad el cura y io en 4 pessos y el gasto la Ama. Ansorena tomo las de Elcorri en 14 d(inero)s y Vicente alias torero las del pueblo en 56 d(inero)s. Tube lino en mi pieza despues de pagar diezmo y primicia trescientas y cinquenta gavicás». Eta, azkenik, idazkera ezberdinarekin, jarraian: «A Frai Yldefonso Alfara por 5 misas debo siete reales y medio fuertes remiti con el sobrino Agustin».

* Horietatik lehen zortziek orrialde bakoitzean idazteko tokia mugatzen duen lauki gorria daramate, Irantzuko «Libro Rubro»-ren antzera: «los nombres de lugares que encabezan cada página escritos en rojo» (Jimeno Jurio, 1970).

** «Ad vincula», seguru asko, zulatuta baitago galdera ikurraren tokia orrian. Sagaseta (1992, 6. orr.) horrela dakar aipaturik: «El 14 de septiembre de 1886 ingresó en la Hermandad de San Pedro ad Vincula de Arañaz, donde figura como patrimonista de Echarri-Aranaz y coadjutor de Huarte Araquil». Victoriano Huici apez etxarriarrari buruz ari da.

3. DOKUMENTUAREN GORPUTZ EDO EDUKIA

Liburuaren edo dokumentuaren edukia aztertzeko orduan, liburuak berak dakarren ordenari erreparatu beharrean, gaika sailkaturik (kapilautzak, sorrera dokumentua eta hamarrenari buruzkoak) emanen ditut hauek, ez baitator bat dokumentuak fisikoki dakarrena eta atal edo gai ezberdinen kronologia bera ere.

3.1. Orri zenbatuen aurrekoa eta beste batzuk: kapilautzak

Dokumentuko «aurkibidean» bertan jasotzen da xehetasun hauxe, hau da, paper solteak omen zirenak, liburuaren hasieran erantsita direla.

3.1.1. *Liburuaren hasierako kapilautzak*³

Liburuaren edukiaren hasiera: «razón de las capellanías que estan fundadas á favor del cabildo y los días en que se han de celebrar misas por la alma de los fundadores =»

Normalean, diru kopuru zehatz bat edo ondasunen baten interesak jartzen zituzten kapilautza sortzen zutenek, diru horren truke hainbeste meza, erresponso edo urteurren egiteko Santa Maria elizako apezek haien edo beste norbaiten arimaren alde. Diru iturri oparoa, ikusiko denez, elizarena garai horietan.

Kapilaua «jabe» da, hau da, edozein jabegoren kasuan bezala, jabe izateak, zenbait eginkizunen trukean, onurak –ekonomikoak bereziki jakina– eskaintzen dizkiola aipatu kapilauari esan nahi du.

Arroyo Vozmedianok (2007) Calahorrako kapilautzak aztertu ondoren horrela dio bere artikuluaurrean: «Las capellanías consistían en la imposición de un capital, bien en dinero o valores, o bien en inmuebles. El patrimonio se invertía o arrendaba, destinándose los réditos a sufragar una serie de misas celebradas por el capellán o capellanes titulares».

Eta jarraitzen du kapilautzen bereizketa eginez, laikalak edo kolatiboak izan daitezkeela esanez. Lehenak justizia zibilaren mendean zeuden eta, bigarrenak, elizarenean. Azken hauen kasuan, ondasunak elizaren jabego izatera pasatzen ziren.

Etxarri Aranazko kasuan, ondorengo da kapilautzen egitura formala:

- Kapilautza sortzailea, nongoa den, zein etxetakoa ere bai zenbaitetan, adierazirik.
- Kapilautzaren oinarria: meza, erresponso, urteurren... hauen kopurua ere zehazturik.

3 *Kapilautza* 1. iz. Kapilauaren kargua edo egitekoa. 2. iz. Kapera baten ardura izateko apaiz bati ezartzen zaion diru saria. *Kapilau* 1. iz. Kapilautza baten jabe den apaiza; moja-komentu, espetxe, gudaletxe edo kideko tokiren bateko elizkizunen ardura duen apaiza. [...] 2. iz. Kapera baten ardura duen apaiza (Euskaltzaindia, 2016).

- Nork hartuko duen kapilautzaren ardura, zein izanen den kapilau, beraz; eta baita kapilautzaren legezko oinarria (testamentua, eskritura...) nork burutzen duen ere.
- Aurreko atalekoa burutzeko jarritako diru kopuruaren adierazpena, non uzten den aipatu dirua zentsoan ere zehaztuta.
- Guztietan ez bada ere, gehienetan, noiz sortzen den kapilautza ere ageri da.

Dirua, esan bezala, askotan zentsoan jartzen zuten kapilautza sortzen zutenek. «Zentsu kontratua» egiten zuen kapilautza sortzen zuenak, hau da, persona batek beste bati urtero diru kopuru bat ordaintzeko betebeharra hartzen zuen, kapitala onartuz eta bere ondasunen baten bermearekin. Eta, normalean, gainera, legediak eskritura edo txosten publikoa egitea eskatzen zuen aipatu kontratua egiterakoan. Mailegu hipotekarioaren antza zuen, baina zordunak erabateko eskubideak mantentzen zituen berme moduan jarritako ondasunarekiko.

Honelaxe dio, Garcia Sanz historialariak ere (1961): «Los censos fueron una de las más importantes formas de crédito en el Antiguo Régimen. Su mecanismo era simple, consistía en prestar una cantidad de dinero en metálico, que se concedía con una garantía hipotecaria sobre determinados bienes».

Eta hortxe datoz jarraian, bata bestearen atzetik, hainbat etxarriarrek sortutako kapilautzak:

- Marina de Garaialdek, Erreronekoa etxekoa, bi mezatako kapilautza, errepon-tsoa eta guzti, bere fuesan (elizako hilobia) egitekoak sortutako kapilautza. Hogei dukadoko zentsoa utzi zuen hasieran Lizarragabengoko Jakanekoa etxean horretarako. Ondoren, hauek zentsoa kendu («haviendo luido⁴ los de Jacanecoa») eta gorabehera batzuen ondoren Arbizun zegoen 1768an izena propio ageri nahi ez duen baten etxean («en casa de fulano cocorobillo⁵»).
- Esteban de Yjurcok, aurrekoaren senarra, hiru mezatakoa eta hogeita bost dukadoko zentsoa utzi zuen Lizarragako Diego de Gorrichorenean.
- Maria de Martizek (hutsik baina zutik dirau Etxarriko plazan Maria Martitx-en etxeak egun oraindik) *Maloa* deitua, bost mezatakoa eta hogeita hamar dukadoko zentsoa utzi zuen bere etxearen gainean.
- Anton de Aguerremaiorrek eta Maria bere emazteak, Lucas Aguerrearen etxeok, abesteko bi mezatakoa eta beste zortzi meza arruntetakoak, berrogeita hamar dukadoko zentsoa sortu zuten, hogeita hamar Unanuko Lopetegui eta bere emaztearen eta beste hogeia Miguela de Amestoiren ondasunen gainean, Obanoseko apezak kobratuz bere errentak.
- Domingo de Miguel de Echarri eta bere emazteak, bi mezatakoa eta bere fuesaren gaineko lau erresponstotakoa. Hogei dukadoko zentsoa sortu zuten Lakuntzako Francisco Ganboaren ondasunen gainean.

4 Zorra ordaindu eta, orduan, zentsoa kendu.

5 Seguru asko izena ez jartzeko formula erabili zen. Egungo «fulano, mengano, zutano» horien parekoa.

- Pablo de Yjurraren etxeokoe ordaindu beharrekoa, hoge dukadokoa Domingo de Miguel de Echarriren eta bere emaztea Maria de Maizaren aldeko bi mezatakoa eta lau erresponstotakoa, «Jaureguicoa» eta «Adachenecoa» sendien fuesetan.
- Etxarriko kabildoaren aldeko ehun eta hoge dukadoko zentsoa Marcos de Artieda, Andres de Artieda, Juan Eugenio Ruiz de Gamarra, Magdalena de Vedia eta Pedro Mozoren aldeko mezak eta urteurrenak. Azkenekoarena Santa Barbarako baselizan abestutako meza zen.

3.1.2. 1697ko dokumentua

Kapilautza hauen ondoren, eta beste idazkera mota baliatuz, 1697ko dokumentua dator, Pedro de Jauregui eskribauak idatzia, zeinen arabera Etxarri Aranazko kontzejuak bertako ikaslea den Domingo de Ulaiar kapilau izendatzeko kapilautza berresten du, urtero berrogeita hamar erregu gari ordaintzeko konpromisoa harturik. Dokumentuaren amaieran, eta 66 urte beranduago, 1763an, Pedro de Jauregui eskribauaren ilobak, Martin Joseph de Jaureguik, idazkera ezberdina nabari dela jakina, ziurtatu zuen liburu honetakoa bat zetorrela bere aitona egindakoarekin. Dokumentuan bertan azaltzen da aurreko kapilaua zen Miguel Beltran de Aguadorekin⁶ hikamika zenbait izan zituztela, bereziki egunak argitu berrian eman beharreko meza ez zuelako ematen (ohatzeko maindireek, itsatsi-itsatsirik kapilauaren soinera egun-sentiko orduan, ez zioten haien artetik ateratzen uzten, antza): «d(ic)hos vez(ino)s han considerado que con el d(ic)ho D(o)n Miguel Beltran de Aguado vlttimo capellán tubieron algunas diferencias [...] y p(o)r falta de misa otros días de precepto se han padecido grandes desconsuelos».

Eta goizeko meza emango dela ziurtatzeaz gain, horrela gertatuko ez balitz edo kapilauak kapilautza utziko balu, kontzejuak beste kapilau bat izendateko eskubidea ere jasotzen du dokumentuak: «assi mismo suplican que si los d(ic)hos capellanes acendieren a otras rentas maiores y tubieren la congrua⁷ bastante agan dejación dela d(ic)ha Capellania para que la d(ic)ha Villa pueda nombrar otro Capellan».

Dokumentuaren hasieran, Etxarri Aranazko kontzejuan parte hartu zuten herri-tarren zerrenda dator, lauogeita zazpi izen guztira. Kontzejua legezkoa izateko bi herenak baino gehiagoko partaidetza izan zuela ere jasorik dago eta kontzejua herriko eliza nagusian sortuta zegoen kapilautza baten jabe zela eta urtero berrogeita hamar erregu gariaren errenta zuela kapilauarendako. Ondorengoak dira aipatu 87 kontzejukideak:

6 Egun, Etxarri Arantzen, *Agonekoa* etxea dago eta, seguru asko, abozen honetatik dator: *Aguadonekoa* > **aguaronekoa* > **agaronekoa* > **agaonekoa* > *agonekoa*.

7 RAE (d. g.): «Renta mínima de un oficio eclesiástico o civil o de una capellanía para poder sostener dignamente a su titular».

2.taula: 1697ko Etxarri Aranazko kontzejukideak

Bartolome Artieda (alkate)	Domingo Jaca (bis)	Miguel de Bacaicoa
Miguel de Maiza (zinegotzi)	Bernardo Jaca	Fernando de Aldaburu (eskribau)
Sebastian Ybañez (zinegotzi)	Pedro Maiza	Garcia de Yjurco
Garcia de Peruvianiz (zinegotzi)	Esteban de Yjurco	Andres de Ymaz
Juanes de Lacunza (zinegotzi)	Agustin d'Yturmendi	Juanes de Yjurco
Miguel de Mundiñano (alkateorde)	Gregorio de Aguirre	Juanes de Jaca
Martin de Artieda	Agustin de Artieda	Fermin de Araña
Joseph de Bacaicoa	Joseph de Belza	Juanes de Armendariz
Miguel de Axiain	Martin Jaca	Joseph de Miguel de Echarri
Domingo de Bacaicoa	Esteban de Armendariz	Antonio de Zufuaurre
Miguel de Miguel de Echarri Menor	Martin de Yjurco	Juanes de Erdocia
Gregorio de Yjurco	Fermin de Lacunza	Miguel Belza
Miguel de Armendariz	Anton de Miguel de Echarri	Juanes de Ysaba (bis)
Fermin Martiz	Gabriel de Lamariano	Fermin de Echarri
Domingo de Miguel de Echarri	Martin de Murguia	Juanes Martiz
Juanes de Ysaba	Domingo de Araña	Pedro Martiz
Miguel Belza	Pedro de Arvizu	Domingo Jaca
Juanes de Bacaicoa Achai	Lorenzo de Miguel de Echarri	Martin de Echarri
Miguel de Ygoa	Martin de Ulaiar Menor	Pedro de Jaca
Bartolome Arbizu	Fermin de Garaialde	Esteban de Echarri
Juanes de Mundiñano	Marcos de Artieda	Juanes de Bacaicoa
Miguel de Ochoa	Martin de Garciandia	Domingo de Maiza
Juanes de Maiza	Anton Jaca	Miguel de Erdocia
Bartolome de Galarza	Miguel de Ulaiar	Miguel de Aguerri
Anton de Aguerri	Fernando Larreta	Juanes de Lizarraga
Garcia de Araiz	Juanes de Auzaberria	Miguel de Erdocia (bis)
Pedro de Oteiza	Miguel de Yraurgui	Fermin de Lacunza
Juanes de Lacunza (bis)	Esteban de Bacaicoa	Ygnacio Ulaiar
Garcia de Armendariz	Martin de Miguel de Echarri	Martin de Miguel de Echarri

Laurogeita zazpi batzarkide hauek batzarreko bi herenak gutxienik baziren («y según dixeron de las tres partes las dos y mas concejo hacientes y celebrantes los pr(esentes»), gainerakoan ez zuen baliorik izanen bertan erabakitakoak. Orduan, 87 izanik bi herenak, 131 izanen ziren batzarkide guztiak. Eta batzarkide hauek etxejabe edo su moduan hartzen baditugu, su bakoitzari 5,5 pertsona legezkiok, egia izatekotan dokumentuak berak aipatzen diguna, hau da, 700 biztanle baino gehiago zituela, jaunartzeko adinean ez zeudenak kontuan izan gabe. 720 biztanle, gutxi gorbehera, zituela Etxarri Aranatzek XVII. mendean ondorioztatuko genuke, orduan. Dokumentuak be-

rak horrela aipatzen du: «la d(ic)ha Villa ha sido y es de mucha población que abra en ella settecientas y mas almas de comunión».

Pertsona kopuru altua, bestalde, su edo auzo bakoitzeko, eta emaitza hauxe bi arrazoi ezberdinengatik izan daiteke: lehena, batzarkideek haien asmoa ongi sustatzeko eta goizeko mezaren beharra azpimarratzeko, biztanle kopurua puztu izana zertxobait, momentuan momentuko kanpotarrak ere kontuan izanik; eta, bigarrena, suen osaketan aurki daiteke, gehienak su nuklearrak izan beharrean, polinuklearrak⁸ ere egon zitezkeela kontuan harturik.

3.1.3. 1700eko dokumentua

Aurreko dokumentuarekiko idazkera ezberdina du honek eta ez dago sinaturik eta horrelaxe aitorturik dago liburuan, dokumentuaren amaieran eta idazkera ezberdinarekin: «Esta escritura no esta firmada o autenticada por el es(criba)no; natural(men)te por descuido y omisión una bez que firmo el Cabildo=».

Dokumentua Etxarri Aranazko elizako Kabildoko apezten (Andres de Artieda bikarioa eta Marcos de Artieda, Juan de Yjurco eta Martin de Galarza apez benefiziatuak) eta herriko alkatearen (Miguel de Artieda) arteko meza kopuruei eta meza-emaleei buruzko gorabeherak edo gaizki ulertuak zehazteko egin zen. Bertan esaten da hiru urte lehenagoko dokumentuan erabaki zela Domingo de Ulaiar izanen zela herriko kapilau eta honek emanen zituela herriaren izenean eman beharreko meza guztiak, bai elizan, nola ermitetan. Bestalde, gainerako meza eta ofizioak ere (San Gregorioko baselizakoa, San Adrian baselizakoa, San Miguelgo biak, prozesioetakoak...) Kabildoaren bizkar emanen zirela zehaztu zen.

Amaieran post-data bat dauka eta bertan Elizako kabildoa nortzuek osatzen zuten ageri da: Andres de Artieda bikarioa, Marcos de Artieda, Juan de Yjurco, Domingo Ulaiar eta Martin de Galarza apezak.

3.1.4. 1683ko dokumentua

Idazkera ezberdina du, atzera berriz, eta nekez irakur daiteke bere edukia, tinta ia ezabaturik baitago dokumentu guztian.

Dokumentua herriko kontzejuaren batzarraren bilkuraren zerrendarekin hasten da. Hamalau urte beranduagoko batzarrean baino partaide gutxiago ageri dira oraingoan. 84 1697koan eta 60 1683koan. Biztanlegoari dagokionez ere, esan behar da ehunen bat gutxiagoko datua ematen duela honek: «dela d(ic)ha Villa y dijeron que aquella se compone demas de seiscientas personas».

Biztanlegoa erdiesteko 1697ko dokumentuan aplikaturiko formula aplikaturik (60 su = $2/3 > 90$ su osotasunean; $90 \text{ su} \times 5'5 \text{ biztanle} = 495$), oraingoan 495 biztanle aterako

8 Su arruntaren lau kide eta horietako bat (semea edo alaba) ezkondu eta bertan. Beraz, bi familia etxe berean.

litzaizkiguke 1683 urtean Etxarri Aranatzan, kopuru eskasa, egia bada ere lau urte lehenago, 1679an, herriak sute handia jasan zuela (suak, su edo etxe batzuk kenduko zizkion herriko kopuruari, gutxienik etxeak jaso bitartean atzera berriz, eta lau urteko epeak ez zuen, seguru asko, horiek guztiak jasotzeko astirik eskainiko), dokumentuan bertan data zehaztu gabe eta liburuaren amaiera aldean zehazturik ageri den moduan: «de las casas que nuebamente se fabrican por razón del yncendio que hubo en ella». «Razon de algunas Curiosidades, y antigüedades, q(u)e ha habido en esta villa. Primeramente esta villa se quemó año de 1530_ Primera bez_ m(a)s fue quemada año de 1679 segunda vez» (38aurki).

1697ko dokumentuan erabilitako formula oraingoan aplikatuko bagenu, hau da, dokumentu honek ematen dizkigun datuak ordukoan bezala erabilia, su edo etxe bakoitzeko biztanle kopuru altuegia eman liguke (610 biztanle / 90 su edo etxe = 6,9 biztanle su baloitzeko). Horregatik aplikatu dut oraingoan aurreko dokumentuan su edo etxe bakoitzeko ateratako biztanle kopurua, 5,5ekoa. Ondorengoak dira bazarturik ageri diren 60 etxarriarrak:

3. taula: 1683ko kontzejukideak Etxarri Aranatzan

Pedro de Bacayqua (alkate)	Juanes de Mayza (bis)	Domingo de Araña menor
Martin de Ulaiar (zinegotzi)	Martin de Miguel de Echarri	Esteban de Yjurco
Juanes de Herdocia (zinegotzi)	Pedro Martiz	Martin de Echarri
Martin de Miguel de Echarri (zinegotzi)	Fermin Yjurco	Esteban de Armendariz
Domingo de Miguel de Echarri (zinegotzi)	Vicente Martiz	Anton de Miguel de Echarri
Joseph de Bacaicoa (alkateorde)	Ju ^l de Mundiñano mayor	Pedro de Mayza
Martin de Artieda	Miguel Asiain	Bar(tolo)me de Galarza
Juanes de Lacunza (Iraurgui etxekoa)	Juanes de Yjurco	Juanes de Herdocia (bis)
Juanes Martiz	Juanes de Armendariz famosso	Juanes de Breay que es mayor
Martin de Lacunza	Juanes de Bacayqua (Lacunzarena etxe)	Martin de Ulaiar menor
Miguel de Yjurco menor	Miguel de Araña	Juanes de Ysaba
Miguel Velza Simico	Miguel Velza mayor	Domingo de Bacayqua mayor
Sebastian Ibañes	Antonio Zufiaurre	Anton Jaca
Fermin de Miguel de Echarri	Martin de Herdocia	Miguel de Artieda
Miguel de Bacayqua Verastegui	P(e)d(r)º de Artieda Sargento	Mario Garcia de Jaca
Lucas de Urresti	Fermin de Echarri	Esteban de Ezcutori
Juanes de Lacunza	P(e)d(r)o de Peruzurguin	Juan de Yjurco
Dionissio Aragon	Martin Ygoa	Miguel de Ulaiar
Martin de Artieda	Juanes de Mayza	Fermin de Lacunza
Gregorio de Yjurco menor	Juanes de Mundiñano	Juan de Urquizu

Dokumentuan zehaztu zen Miguel Beltran de Aguado kapilauak egunero emanen zuela meza egunak argitu eta ordu bat beranduago. Era berean, jaiegun eta egun berezietan, aipatu kapilauak organoa joko zuen. Eginkizun honengatik, kapilauak hamar dukado jasoko zituen, bost herriaren aldetik eta beste bost elizarenetik. Dokumentua Pedro de Xauregui (sic) eskribauak sinatu zuen. Lekuko moduan Gabriel de Yriarte, P(edr)o de Araiz eta Ju(an) de Auzaberria ageri dira.

3.1.5. 1611ko dokumentua

Joan de Huartek eskatuta, Etxarri Aranazko bikarioa zen Juan de Bulanok egin zuen dokumentu hau 1611ko martxoaren 30ean, bertan jakinarazteko Miguel de Lazcoz zela lau urte lehenagotik (1607ko urriaren 5etik) San Adrian baselizako ermitañoa. Honek urte horietan ezin hobeki zaindu omen zuen aipatu baseliza eta baita sakristau lanak egin Etxarri Aranazko elizan. Dokumentuan aipatzen da, era berean, pertsona oso egokia zela eginkizun horietarako: «y a sido y es de Buena Vida y costumbres onesto recogido apartado de riñas y de toda deshonestidad hexemplar vida y de piandad».

3.1.6. 1762ko dokumentua

Liburuko aurkibide modukoan esaten du idatzi honen zioa dela Etxarri Aranazko eta Ergoieneko etekin edo benefizioei buruzko dokumentuaren berri ematea Katedralari: «Yten el traslado de la ess(critu)ra de compromiso con la Catedral sobre los beneficios de esta Villa y del Valle de Ergoiena».

Eta dokumentua bera irakurriz (hasiera protokolariora eta guzti Carlos erregearena), aldiz, ikus daiteke bederatzi urte lehenago (1753ko otsailaren 12koa) egingako dokumentuan jaso zena bete zezala Arbizuko herriak eskatzeko burutu zela dokumentu hau. Aipatu berri dudana honetan Arbizuko Sebastian de Lazcoz zinegotziak eta Fran^{co} de Vrquia auzoak ehun eta hogeit hamar dukado eskatu zioten Etxarri Aranazko kabiloari Sarranteko eta Ferdadiako lur eremuak hipotekatuz ziurtatzeko urteroko hogeita hemeretzi erreal eta hogeita bat marabediko zentsoa ordainduko ziotela aipatu kabiloari. Eta, dokumentuaren arabera, azken lau urteetako ez zenez jaso Etxarri Aranazko kabiloak, lau urteetako kopuru horixe eta beste bederatzi erreal eta bost marabedi dokumentuaren beraren kostuagatik ordaintzeko eskatzen zioten arbizarrei.

Dokumentua Juan Mathias de Ascaratek (eskribaua idazkeragatik, berbera baita dokumentuaren gorputzekoa eta sinadurakoa) eta Julian Ant(oni)o de Ozcarizek sinatuta dago. Ondoren, paper laukitxo batean, itsatsita eta gorritz markatua bere ertz guztia, ondorengo dakar: «Sellado y Registrado por mi el Registrador Miguel Gu(iller)mo de Elizalde». Bitxikeria moduan, orrialdearen erdi-erdian, txanpon baten irudia dago markaturik ikatz erara.

3.1.7. *Maria de Yrauguiren testamentua*

Dokumentuak (Juan de Yjurco notarioak sinatua) erakusten digu zein den XVIII. mendeko testamentu baten egitura, atalak ongi bereizirik baitaizka:

- Sarreran, data, testamentu emalearen egoera eta dokumentuaren izaera jasotzen ditu.
Etxarri Aranatzan, 1709ko apirilaren 11ko datarekin ematen zaio hasiera testamentuari eta bertan islatzen da Maria de Yraugui, Juan de Erdocia «alias frances» etxarriarraren alarguna, ohean gaixo zegoela testamentua egiterakoan.
- Hasierako atala, protokolozkoa, arima Jainkoaren baitan utziaz testamentu emaleak.
- Zazpi atal, guztiak «yttem» partikularekin hasi eta testamentuaren berezko berezitasunak jasotzen dituztenak:
 - Lehenak, hildakoan, herriko elizan, bere gurasoak dauden toki berean lurperatzeko esaten du eta bertan herriko apezek hilobiratzea, bederatziurrena, gainarako elizkizunak eta urteurrena eginen dizkiotela. Era berean, zehazten du jaratzeko bere hilobiaren gainean bi argizari-porka⁹ eta lau kandela edo zirio («dos achas¹⁰ y quatro cirios»¹¹), eta ogia, argizaria eta kornadoak¹² urte eta erdirako. Honetaz gain, bere arimagatik elizako kabiloak hogeita hamar meza esateko ere jasotzen du eta horretarako bere oinordekoak erreal eta erdi ordainduko du.
 - Bigarrenak, bera eta berari enkomendaturiko arimengatik betiko eta urtero bi meza esateko zehazten du, lehena San Juan Bataiatzailearen egunean eta bigarrena *Maria Santisimaren Kontzepzioaren* egunean. Hauek ordaintzeko bi soro (*Aran-gorrietan* eta *Ustian*) utzi zituen, hauen interesekin urteroko bi mezak emateko.
 - Hirugarrenean, Legarbeko soro bateko etekinak Konzezio baselizako ermitañoa zen Joseph de Urquizuri emateko zehazten da, aipatu ermitañoak baseliza behar bezala zaintzeko. Mantel fin bat ere eskaini zion aipatu baselizari.
 - Laugarrenean, bere ilobak diren Juana eta Maria de Belza ahizpei soro bana uzten die, Altiturrietan lehenari, eta Berruetan Mariari.
 - Bosgarrenean, Martin de Miguel de Echarri Zelayari sei erreal ordaintzeko esaten du, kutxa berri bat egin ziolako, eta beste hainbeste Marcos de Artiedari ardo upel bat zor baitzion honi. Bere senarraren hileta-elizkizunetan jarri ziren ogia, argizaria eta kornadoa bere oinordekoak ordainduko zituela ere zehazten du.
 - Seigarrenaren arabera, bere ondasunetatik zerbait jasotzeko eskubiderik lezaketzen guztiei, eta bereziki Maria de Yraugui menor bere ahizpari, eta bere ilobak ziren Juana eta Maria de Velzari, higiezinetatik Urbasako eta Andiako basoetan dituen lurrak, eta, honetaz gain, bost sueldo karmin bakoitzari utziko ziela jasotzen da.
 - Zapigarrenean, bere ahizpa Maria de Yraugui menor oinordeko nagusi eta bakar.

9 Gaztelaniako «acha» adierazi nahi da. Argizari-sorta, lau beso edo metxa dituen.

10 Horrela dator RAE-n (on line): «Vela de cera grande y gruesa, con cuatro pabilos». Eta azken hauek, pabiloak, horrelaxe: «Mecha de una vela».

11 RAE (d. g.): «Vela de cera de un pabulo, larga y gruesa».

12 Kobrezko txanpona, laurden bat zilarra zuena eta koroa grabaturik, Gaztelako Sancho IV.aren garaitik erabilia izan zen Errege Katolikoeneraino. «Coronado» partizipioaren forma sinkopatua dugu.

- Amaiera, hau ere protokolozkoa, notarioaren sinadurarekin. Hemen esaten du nortzuk izanen diren testamenduan zehaztutakoa aurrera eramateko arduradunak («cabezaleros, y executores testamentarios»): Juanes de Armendariz eta Miguel de Ysaba etxarriarrak.

3.1.8. 1753ko dokumentua

Magdalena de Bedia «mayor», Juan Ruiz de Gamarraren alargunak 1729an egin-dako betiko urteurrenaren berrespena da dokumentu hau eta, oraingoan, Joseph de Ansorenak eta bere emaztea Magdalena de Jaureguik sinatzen dute, hurrenez hurren, Etxarri Aranazko kabildoko bikario eta benefiziari zein presbitero diren Martin de Miguel de Echarri, Francisco de Armendariz, Manuel de Iriarte, Miguel Antonio de Aldaburu eta Domingo de Artiedarekin batera.

Dokumentuaren arabera, hasierako senar-emazteen arimen alde, urtero eta betiko urteurrenaren, meza abestua diakonoa eta subdiakonoarekin emanen zuten kabildokoek. Urteurrenak bi izanen ziren, beraz, eta horretarako ehun dukadoko zentsoa jarri zuen Urdiaingo ondasunen gainean, ehuneko hiruko errentarekin.

Bertan aipatzen da urteurren hauxe egin zuten senar-emazteen oinardekoak ziren Joseph de Ansorena eta bere emazteak dokumentuan esandako eginbeharrekin bete zutela Urdiaingo herriak ehun dukadoak itzuli zituen arte 1752an: «*asta que d(ic)ho lugar de Urdiain hizo luiz(i)on de d(ic)hos cien duca(do)s entregándolos a los mesmos Joseph de Ansorena y su mujer*»

Ansorenak ehun dukadoak kabiloari eman nahi izan zizkion, honek zentsoan jarri eta errentarekin jarraitzeko bi urteurrenak egiten, baina kabiloak erantzun zion ez zela nahikoa ordurako ehun dukadoen errenta bi urteurrenen gastuei aurre egiteko. Eta urteurrenaren gastuak zehazturik agertzen dira: apeza (3 erreal), benefiziari eta apezgaiak (*espectanttes*) (2 erreal), sakristaua (0,5 erreal), benedikapena (*respilla* barne) (2 erreal) eta gainerakoak (erreal 1). Guztira, 8,5 erreal.

Eta negoziatu ondoren zenbatekoa izan beharko lukeen zentsoaren kopurua, ehun eta hoge dukadokoan adostu zuten.

Ansorenak eta emazteak, orduan, ehun eta hoge dukado eman zizkieten kabildoko Domingo de Artiedari, baina garbi utziaz ordutik aurrerako aipatu bi urteurrenen ardurak kabiloarena izanen zela: «*queda el dho Cavildo en cumplir la celebrz(i)on de ambos aniversarios sin intervenz(i)on ni mas conttribuz(i)on de los d(ic)hos Ansorena su mujer y sus here(dero)s*».

Amaieran, hasieran aipaturikoak ageri dira sinatzaile gisa eta baita Fernando de Aldaburu eskribaua eta lekuko bezala Joseph de Echarri eta Francisco de Aguirre.

Geroxeago, beste xehetasun batzuk aipatzen dira.

3.1.9. XVII. eta XVIII. mendeetako zenbait kapilautza, urteurrenak eta gainerako eliza fundazioak

«Razon de las Capellanías y fundaciones que ay en la Parroquia N(ues)t(r)a S(eño)ra en la Villa de Echarri Arañaz a doce de Diciembre de mil setecientos quarenta y nueve» (17binper): horrela du hasiera aipatu dokumentuak eta bertan jasotzen dira 1728 urtetik aurrerako «capellanias, aniversarios memorias, y otras fundaciones fundadas» eta baita 1706 urteko zerrendan jaso ez zirenak eta aurreko beste zenbait ere, horien artean zaharrena 1627koa.

Asko direnez aipatu kapilautza, urteurren eta gainerako eliza fundazioak (33 denera), horiek guztiak taula batean laburbildurik eskaintzea erabaki dut, horietako bakoitzaren atalik nagusien edo garrantzitsuenak sei zutabetan jasorik (data, nork sortu zituen eliza fundazioak, zein helbururekin edo zertarako, zenbatekoa zen ordaindu beharrekoa, izaera ofiziala ematen zion eskribauaren izena eta, azkenik, eginbeharrekoaz arduratuko zen kapilauaren izena). Taulako laugarren zutabeari erreparatuz gero, ikus daiteke horrelako eliza fundazioak ez zirela herritar arrunten esku izanen eta, gainera, taulako atal ezberdinetako pertsonaien abizenak eta harremanak ere aztertutik ondoriozta daiteke herritar gutxiren mesederako izanen zirela fundazio hauek. Aurreragoko «bulak» ekartzen dizkit honek guztiak niri neuri, behintzat, gogora. Ondorengoak dira, orduan, atal honen izenburuan bertan aipatzen diren kapilautzak:

4. taula: eliza-fundazioak Etxarri Aranatzan XVII-XVIII mendeetan

Data*	Nork	Zer**	Dirua	Eskribaua	Kapilaua
1650/02/01	Etxarri Aranazko udalak	Bi meza apez gazteen alde	50 erregu gari	Pedro de Viguria	Domingo de Ulaiar
—	Bartholome de Artieda	Meza bat astero	250 dukado	Fernando de Aldaburu	Domingo de Artieda
1710/05/29	Miguel de Artieda	10 meza	200 dukado	Antonio Ruiz de Galarreta	Domingo de Artieda
1731/10/20	Magdalena de Vedia	Kapilautza Mezak	210 du-kado, 150 dukado	Miguel de Artieda	Joseph de Ansorena eta emaztea
1704/07/08	Cathalina de Urquizu	Urteurrena. Meza abestua hiru urtetan	30 dukado	Bartholome de Artieda	Miguel Antonio de Aldaburu
1730/07/08	Margarita de Martiz	2 meza abestuak erespontsoarekin bere hilobian.	20 dukado	Andres de Lizarraga	Miguel Antonio de Aldaburu
1716/05/11	Maria de Artieda	Meza abestua errespon-tsoarekin kapilaua bizi zen artean hilobian.	10 dukado	Francisco de Jauregui	Miguel Antonio de Aldaburu
1720/12/27	Esteban de Y-jurco eta Marina de Garaialde	Testamentua	20 dukado, 25 dukado	Francisco de Jauregui	Francisco de Armendariz

* Ez da orden kronologikoan ageri, klaberriako liburuan baizik.

** Kapilautza, urteurrena, meza, erresponsoa...

Data*	Nork	Zer**	Dirua	Eskribaua	Kapilaua
1716/12/29	Maria de Martizz	Testamentua. 5 meza urtero	30 dukado	Miguel de Artieda	—
1730/05/05	Isabel de Mundiñano	Testamentuan urteurrena, 4 meza errezatuak urtero	40 dukado	Miguel de Artieda	Domingo de Artieda
1709/03/01	Juanes de Maiza, «Chato»	Testamentuan 3 meza errezatuak erresponsoekin	20 dukado	Pedro de Jauregui	Bikarioa
1712/06/05	Antton de Aguirre mayor eta Maria de Maiza	Autto. 2 meza abestuak eta 8 errezatuak	50 dukado (30/20)	Bartholome de Arrieta	Bikarioa
1683/07/13	Miguel de Araña eta Margarita de Huici	Eskritura. Meza abestu bat	10 dukado	Miguel de Artieda	Bikarioa
1627/04/07	Domingo Beltran de Aguado	Testamentua 10 meza	20 dukado	Miguel de Artieda	Kapilaua
1726/06/21	Fermin de Ijurra eta Isabel de Ijurco; Martin de Ijurco eta Inesa de Belza	Eskritura. 2 meza abestuak eta 4 erresponso	20 dukado	Fernando de Aldaburu	Juan Pablo de Ijurra
1735/07/06	M ^a de Goicoechea y Echeverria	Kapilautza. Meza bat astero	250 dukado + 100 dukado	Miguel de Artieda	Martin de Jauregui, Bakaikuko apeza
1701/11/26	Fermin de Mearin, medikua	Zentsoa. Aipatu ez, me-zak seguru asko	100 dukado	Pedro de Jauregui	Francisco de Armendariz
1707	Marcos de Artieda	4 urteurren.	—	Ez da ageri	Bikarioa
1739/07/23	Fermin de Artieda	Kapilautza. Mezak	200 dukado	Fernando de Aldaburu	Bikarioa
—	Zenbait soro kabildoari utziak	Meza bat	—	—	—
—	Domingo Erdocia	Meza bat astero, ostira-letan, erresponsoarekin	200 dukado	—	Kapilaua
1737	Miguel de Mundiñano	Kapilautza. Meza bat hil egunean Konzezion	10 dukado	Miguel de Artieda	—
—	Pedro de Mozo	Kapilautza. Meza bat hilabeteko lehen astear-tean eta Ostiral Santu egunean lau txirori jatera eman	316 dukado eta gari soro-ak ere bai	Bikarioak	Bikarioa
—	Alonso Galbar	Kapilautza. Meza abes-tua	25 dukado	—	Bikarioa
—	Juanes de Bacaicoa	Kapilautza. 2 meza errezatuak urteko	200 dukado	—	—

Data*	Nork	Zer**	Dirua	Eskribaua	Kapilaua
1762/01/21	Elizgizonak	Zentsoa	25 du-cados	Lorenzo de Ybañes	—
1766/06/03	Clara de Yxurco	Testamentua. Meza erre-zatua urtero eta betiko	10 dukado	Lorenzo de Ybañez	Pablo de Yxurra menor
1766/04/14	—	(amaiera)	60 dukado	—	—
—	Anjela de Bacaiqua	(amaiera)	60 dukado	Martin de Jauregui	—
1778/02/08	Esteban de Jaca	(amaiera)	60 dukado	Lorenzo Ybañez	—
1730/05/19	Maria de Miguel de Echarri	Kapilautza. 2 meza eta 4 errespontso	20 dukado	Miguel de Artieda	Domingo de Artieda
1763/04/14	—	Zentsoa	60 dukado	Lorenzo Ybañez	—
1766/04/13	—	(aurrekoa)	4 dukado	—	—

3.1.10. Amaierako kapilautzak

Atal honetako hasierako kapilautzek ez dute datarik. Bigarren zutabearen, nork sortu zuen kapilautza jaso dut eta, beste bietan, zenbat dirukoa izan zen eta non jarri zen kopuru hori zentsoan:

5. taula: XVIII.eko zenbait kapilautza

Data	Nork	Kopurua	Zentsoa
—	Bartolome Artieda	250 diru	Ugarren Yrisarrirenean 100; Lizarragan, Yndianorenean 100; Ugarren Lorenzo Martínezenean 30
—	Miguel de Artieda	200 diru	Aldabururenean 100; Armendariz Obronenean 100
—	Domingo Erdocia	200 diru	Miguel Antonio Aldabururenean 50; Ihabarko prebostearenean 50; Unanuko Pedro Erdociarenean 55; Lakuntzako Mercerorenean 15; Etxarriko Adachonecoarenean 15; Arruazuko Martin de Arvizurenean 15
—	Madalena de Vedia	210	Ihabarren Zubiriarenean 80; Arruazun Garcia Mailorenean 80; Lakuntzan Zurinecuarenean 20; Juan Gregorio de Echarrirenean 10; Botikario edo bere anaiarenean 20
—	Domingo de Miguel de Echarri	20 diru	Unanuko Pedro Berasteguirenean 20
1797	Luis Bautistandi	30 diru	Lakuntzako Juan Martin Gamboa eta emaztearenean 30
—	Bartolome Artieda	48 erreal 14 marabedi	Ugarko Juan Diego Yrisarrirenean

Kapilautza hauen ondoren, Pedro Erdociaren etxea kabildoarena zela jaso dago. Unanun ordaindutako («luidos») 55ak (Domingo Erdociak sortutako kapilautzakoak) Lizarragan jarri zirela zentsoan Casedaren aurrean, Agustin de Urquizuren etxean, 1797ko¹³ ilbeltzaren 2an dio dokumentuak. Eta beste 20ak (hauek ere Pedro Erdociaren etxean, taulako beste hogeiekin batera) kabildorena den Unanuko Pedro Berasteguirenera pasatu ziren.

Hutsune luze baten ondoren, dokumentuak 1798ko hamarrenaren berri ematen digu, esanez benefiziatu bakoitzak 42 errege eta 12 almute gari jaso zuela eta gastuak, bakoitzeko, 37 errege eta bi pinta ardo. Artoarena, aldiz, 67 errege eta 3 almute bakoitzak eta gastua 13 errege eta 23 marabedi, ardoarena barne.

Eta hemendik aurrera, soilik zenbait ohar labur (11 guztira) ageri dira jasorik, tartean orri hutsak ere badirela, eta gehienak azken taulako kapilautzen zehaztapenak dira, guztiak XVIII. mendeko azken hamarkadakoak. Ohar horietako batean, Miguel de Artiedaren kapilautzaren zehaztapenean (hurrengo oharrean esaten du 1787ko martxoaren 15ean egin zuela Lorenzo Ybañezek eskritura), aipatzen du Armendariz Obroren zentsoarekin 4 meza eman behar zirela Zugarretan eta 2 elizako Errosarioaren altarean.

Ondoren, bost lerro ezabatuak datoz dokumentuan, baina erraz irakur daitezke eta ondorengo diote aipatu lerro ezabatuak: «El día 13 de julio di amancomun con Domingo Ansorena y Biarrus¹⁴ a los Becinos de Lizarraga veinte y ocho robos de trigo a onze fuertes a pagar por Navidad de 1799 en la escritura dirá 26 pero salieron dos mas en el monton y aun me queda un robo».

Jarraian, Maria Eder izeneko bati egindako arto salmentaren berri dago, saltzen zuenak jaso lehen pertsonan. Guztira 49 errege arto eramán zituen Maria Ederrek eta, ordaindu, hasieran 30 pezeta eskura; 6 eskudo zahar, 2 pezeta eta 5 marabedi neska-meari emanak; eta 9 peso «fuerte» azkenean. 2 peso, hala ere, zorretan geratu zela dio. Liburuaren amaierakoak, artikuluko lehen atalaren bukaeran, hau da, liburuaren deskribapenean, jasota daude hitzez hitz.

3.2. Orri zenbatuak: Etxarri Aranatz herriaren sorrera-dokumentua

Hasieran, liburuaren deskribapena egiterakoan esaten nuen moduan, badirudi orri zenbatu hauekin eman zitzaizola hasiera liburuari. Lehen bi orriak hutsik daude, baina lehenari goiko erdialdea falta zaio, propio kenduta, ezen lauki gorria hutsik du beheko alde honetan eta ikus daiteke goian ere jarraitzen zuela aipatu lauki gorriak. Falta den zatian, seguru asko, dokumentuaren izenburua izango zuen eta hurrengo sei orriek testua marko gorri baten barnean daukate.

13 Ez ditu urtearen digito guztiak jartzen, azken biak baizik. Baina kopurua eta herriak direla eta, ondoriozta daiteke urte hau izan zela.

14 Etxarri Aranazko etxe baten izena *Biorruts* da.

Testuaren transkribapena, zuzena agertzen den kasuetan, esan behar da hitzez-hitzeko modernizatua egin dudala eta jatorrizko testuari lotu natzaiola, hau da, liburuan ageri diren moduan traskribatu ditut hizki guztiak, txikiak, larriak eta laburdurak errespetatuz, baina parentesi artean bildurik laburduretako elipsiak. Bestalde, dokumentuaren atalak (*ytem* eta *otrosi* hitzekin hasten direnak edota = ikurrarekin banaturik agertzen direnak) zenbaturik agertuko dira, dokumentuaren traskripzioa edota dokumentu bera ere irakurri nahi duenak (gogoratu Udalaren web orrian zintzilikatzeako asmoa dela) errazago jarraitu ahal izateko ondorengo iruzkina. Zenbaketan, hala ere, bi zati bereizi ditut: A zatia, hasierako dokumentuarena, Luis I.a Hutin erregearena, hau da, 1312koa; eta, B zatia, aldiz, Karlos II.arena, hau da, 1351ko pribilegioen zehaztapenarena. Eta, azkenik, aipatu Fortun Pérez de Cirizaren (1985) eta Ruiz San Pedoren (1998) lanak kontsultatu ditudala zalantzaren bat izan dudanean transkribatzerako orduan.

3.2.1. 1312-1313ko pribilegioak (A)

Hemen aipatzen den dokumentua Pedro Sanchez de Artaiso (Artaxoa izanen litzateke seguru asko)¹⁵ Iruñako notarioak idatzi zuen eta bertan Etxarri Aranazko sorreraren dokumentua edo *Carta* aurkezten digu eta nolakoa zen hura ere deskribatzen digu: pergaminoan idatzia eta Karlos II.a Nafarroako erregearen argizari berdeko sigilua daramana. Aipatu dokumentua Etxarriko apezak, Garcia Miguel de Elcart, eta herriko notarioak, Peire Ibañez de Lizarraga, erakutsi ziotela esaten digu eta gaineratzen du indarrean zegoela («non abolita, non cancelada») orduan eta benetakoa («mas de toda suspicion amingoana») edo susmorik gabekoa zela.

Jarraian aipatzen du Karlos II.aren gurasoek, Juana II.a eta Felipe III.a, baieztatuta zutela dokumentuan zioena (1330ean konfirmatu zuten aipatu dokumentua), hau da, Luis I.a Hutin Frantziako eta Nafarroako erregeak Etxarri Aranatz sortzeko 1312an emandako pribilegioa, latineko formula erabiliz horretarako: «Ludovicus Dei gracie Francie et Navarre Rex, notum facimus universis tam presentibus quam futuris nos infraescritas bidise literas formanque sequitur continentes».

Eta hementxe hasten da Etxarri Aranazko sorreraren hasierako dokumentua: «In nomine Domini Amen. Sepan quantos esta pr(ese)nte Carta veran e oiran que ante nos Engarran de Villers, Governador de Navarra».

Aipatu Engarran, Luis I.a Hutin erregearen gobernadorea zen Nafarroan eta berarengana jo zuten Aranatz haranekoak eskatzera Etxarrin zegoen etxarria edo dorretxearen inguruan bizitzera bidaltzeko aranaztarrak, hauek bertan babestu ahal izateko Lazkaoko jauntxoaren erasoaldietatik bereziki eta, era berean, erresuma bera ere seguruago egoteko. Gobernadoreak jarraian aipatzen du jende onen eta

15 Fortún Pérez de Cirizak (1985) horrela dakar: «AGN, *Comptos*, caj. 11. Núm. 72. Inserto en una confirmación de Carlos II (Pamplona 25 de junio de 1351) conservada en vidimus en perg. De Pedro Sánchez de Artajo, notario de Pamplona, 21 de diciembre de 1352, (D)».

zintzoen ahokularitzarekin hartu zuela eskaerari baiezkoa emateko erabakia. Eta, gainera, zenbait pribilegio edo eskubide ere aitortu zizkien bertara bizitzera joanen zirenei.

Hona hamabost ataltxoetan azaldurik dokumentuaren muina eta aurki eta binper erabilia zehazturik, dokumentuko zein orrialdetan dagoen bakoitza:

1A. Etxarri Aranazkoei ez zitzaien *lezta*¹⁶ eta *peajerik*¹⁷ eskatuko, hau da, ez zituzten garai hartan ohikoak ziren zerga hauek ordainduko (4aurki).

2A. Erregearen basoetan eta lurretan behar zuten egurra¹⁸ eta zura har zezaketen eta ganadua sartu eta ura hartu ere bai, ezer ordaindu gabe. Bestalde, zuhaitzak bota eta bertan ereiteko lanak ere egin zitzaizketen (*rotura*) (4aurki).

3A. Almirantea¹⁹ izanen zuten bertakoa eta honek eta ez beste inork izanen zuen etxarriarrak gobernatzeko eta hauei agintzeko ardura. Almirantea erregearen ordezkaria zen eta, normalean, hark berak edo gobernadoreak izendatzen zuen (4aurki).

4A. Era berean, 6 jurado²⁰ eta maiorak²¹ izanen zituzten, horietako bi hidalgoak eta beste laurak nekazariak. Sei kargu hauek hiru gizon aukeratuko zituzten erregeari edo gobernadoreari aurkezteko eta honek horietako bat izendatuko zuen alkate. Prozedura hau urtero errepikatuko zen San Juan egunean eta alkate horren erabakiei egindako elegiteak Iruñeako Azokako Alkateak erantzunen zituen. Juradoek gai ekonomikoak kudeatzen zituzten eta, noiz behinka, gai oso garrantzitsua zenean, auzotar guztien batzarrak erabakitzen zuen, guztiek zin eginez. Gaur egungo alkate eta zinegotziak izanen lirateke. Feriak eta azokak ere kontrolatzen zituzten. Maioralak, berriz, auzo ezberdinetako ordezkariak ziren eta hauek ere ondasun eta zerbitzuen ordainketak eta kobrantzak kudeatzen zituzten. Buruzagiak ziren. Normalean, notario bat ere bazen eragiketa guztiak behar bezala idatzirik jasotzeko (4aurki-binper).

5A. Herrian ez zen erregearen ofizialik sartuko kalte egitera²². Ez zen, beraz, beste aginterik izanen aurreko puntuan esandakoaz gain (4binper).

6A. Etxe bakoitzean, ogia egosteko labea egin ahal izanen zuten, betiere Etxarriko nekazariak ondorengo zergak ordaintzen bazituzten, betiko eta urtero, San Migel egu-

16 Salerosketagatik ordaintzen zen zerga. Egungo BEZaren parekoa izanen genuke.

17 Nonbaitetik pasatzeagatik ordaintzen zen zerga. Egun ordaintzen dugu.

18 «Tasar» dator hemen, baina seguru asko 'talar' izanen da. 1312koan 'tayllar' dator eta 1506koan, berriz, 'talar'.

19 Erregearen ordezkaria, hark berak edo gobernadoreak izendatua. Merinoaren parekoa izanen genuke.

20 Zin egiten duena da, «el que da juramento». Euskaraz, egun, zinegotzi esaten zaio Udaleko ardurak hartzen dituenari, komunitatearen interesak zainduko dituela zin egiten baitu.

21 Herriko auzo bakoitzeko arduradun ekonomikoa bereziki. Aragoi 'mayordomo' esaten zitzaion.

22 Horrela dator dokumentuan: «[...] por facer mal ni tuerto ninguno».

neko ferian: 3300 *sueldo*²³ *pechagatik*²⁴, 100 *sueldo cenagatik*²⁵ eta 600 *sueldo (sanche-teak)* Etxarriko eliza eta honen jabegoengatik, ordurarte eliza honetakoak ziren Aldaba eta Bidarri izan ezik. Guztira, Aranaz lurraldeko nekazariak 4000 *sueldo santxete* ordaindu behar zituzten urteko eta Etxarrikoek 16 ('*sece*'²⁶) *sueldo gehiago pimientagatik*²⁷. Honetaz gain, elizaren jabego guztiak egoera onean izan behar zituzten eta baita betiko eta egunero meza emanen zuen apeza izan (4binper-5aurki).

7A. Larunbatero azoka izanen zuten eta bertakoek ez zuten ezer (*lezta, peaje*) ordainduko. Kanpotarrek, aldiz, *dinero*²⁸ bat buruko ordainduko zuten idia edo *vestia* (sic) saltzeagatik; eta *meaja*²⁹ bat buruko txerria, ardia, ahuntza, akerra edo aharia saltzeagatik (5aurki).

8A. Bi feria izanen zituzten urtean zehar, zortzi egunekoa bakoitza: bata San Juan egunean hasia eta *lezta* kanpotarrek soilik ordainduko zuten bertan; eta, bestea, San Migel egunean³⁰ hasia eta inolako zergarik ordaindu gabe (5aurki).

9A. Lurrak lantzeko eremu berriak (*rotura*³¹) Etxarrikoek Aranatz lurraldeko hidalgoekin banatuko zituzten eta zergarik ordaindu gabe. Aranatz lurraldeko nekazariak ere emanen zizkieten haien lurrak, baina hauek ohiko *pecha* ordainduz (5aurki).

10A. Etxarriko hidalgoek lurra lantzeko eremu berrietan nekazarien bikoitza har zezaketen (5aurki-binper).

11A. Kanpoko beste hidalgo batzuk Etxarrira etorriko balira, ezin izanen zuten bizi Jaunaren baimenik gabe eta ongi aztertuak izan gabe. Hidalgoa zela probatu eta gero, lur eremu berrietan nekazari batek bezala hartzeko aukera izanen zuen, baina ezer ordaindu gabe (5binper).

12A. Hidalgoa ez zen kanpotarra etortzekotan, nekazariak bezala har zezakeen lurra, baina herriko nekazariak zergak ordaintzen lagunduz (5binper).

23 Libra baten hogeirena, hau da, libra batek hogeit hamar sueldo zituen. Badirudi Antso Jakintsua erregeak sortu zuela eta horrexegatik esaten zitzaion sueldo santxete. Dinero ere esaten zitzaion.

24 Zerga edo kontribuzioa.

25 Nafarroan eta Aragoian erregeari ordaintzen zitzaion zerga bere mahairako. Gaztelan berdin ordaintzen zen eta 'yantar' (jan) zuen izena.

26 16 dela uste dut, «once-doce-trece-catorce-quinze» zenbakien jarraipen moduan harturik.

27 Beste zerga bat, seguru asko, izen bereko espeziarekin zer ikusia duena. Erregeak, normalean, gatzaren monopolioa izaten zuen eta honen balioaren %20 berak jasotzen zuen. Antzeko zerbait gertatuko zen, seguruenak, pimientarekin ere.

28 Sueldoaren parekoa.

29 Dinero baten seirena, hau da, dinero edo sueldo batek sei *meaja* balio zituen. Latineko 'medialia'tik dator.

30 Feria hauxe izan daiteke egungo lastaileko (urria) feriaren jatorria. Lastaileko lehen asteburuan izaten da egungo feria eta San Migel, aldiz, urriko (iraila) azken egunetan izaten da.

31 Ordurarte landu ez diren lurrak, basokoak gehienbat, bertan laboreak erretzeko prestatu. Horretarako, zuhaitzak bota, sastraka eta sasiak moztu eta lurra irazeki egiten zen.

13A. Aranazko lurraldetik Etxarrira etorriko ziren guztiek, haien lurrengatik zergak ordainduko zituztenez, eskubidea izanen zuten lur eremu berriak eta aurrekoak erabilteko beste zergarik gabe («seiendoles en salbo en todo y por todo el Privilegio»). Eta hori guztia finkoa izan zedin, gobernadoreak errege-sigilua jarri zuen Karta edo dokumentu honetan, Etxarriko gazteluan, urriko³² lau tenporen aurreko lehen igandean³³. Baina bere orde, lekuko gisa, ondorengo nobleak bidali zituen: Ojier³⁴ de Mauleon, Juan Martinez de Medrano, Martin de Aibar, Nafarroako alkate nagusia zen Martin Ibañez de Uriz, Pedro Sanz de Veraiz eta Korteko alkatea zen Miguel Mora. Notarioa Juan Perez izan zen eta urtea aldiz, 1312 («anno Domini milesimo trecientos duodécimo»). Eta gobernadoreak dio erregeak Nafarroara bidalitako jaunen esanak jarraituz sinatu zuela dokumentu edo Karta hau, haiek ikuskatu ondoren eta, horrengatik, ohar batzuk ageri dira ataltxo honetan. Aipatzen diren erregearen ordezkariak ondorengoak dira: Mexiere Mig' Señor de Ocier, Maritxe Esteve de Borret sor dean de Puaz, Megiere Alfonso de Robran, Mexiere Juan Paste eta Mexiere Ugo de Vriac (5binper-6aurki).

14A.³⁵ Aipatu oharrak aurreko ataletan jasotakoak zehazteko dira: erregearen basoetatik etxarriarren etxeetarako egurra eta zura har zezaketela zioen atala zehazten da, inola ere ezin zutela egur edo zur horiek saldu ez beste bati eman gehituz; laboreak ereiteko lur berriak egiteko aukera ematen zien atala, berriz, zehaztu zen esanez erregearen basoetaraino soilik egin zitekeela halakorik eta inola ere ez erregearen basoetan («et non destruides por las roturas los montes del señor Rey») (6aurki).

15A. Eta, azkenik, almirantea izendatzeko orduan, aipatzen zen *Señoriak* jarriko zuela («que el d(ic)ho Amirat sea puesto por la señoria») (6aurki).

Hemendik aurrera, sinaduraren data eta lekua ageri dira, Iruñea eta 1313, eta ondoren latinezko formula erabiliz errepikatzen du zergatik hartzen den Etxarri Aranatz sortzeko erabakia («no era bien poblada ni cerrada ni enfortecida») eta zein eskubide eta betebeharrak izanen zituzten bertara bizitzera joandakoek eta joanen zirenek (6binper).

3.2.2. 1351ko zehaztapena (B)

1313ko dokumentuan jasotakoak zehaztu egiten dira hurrengo orrialdeetan. Zehaztapen hauek dira 1351 urtean Karlos II.ak baieztatutako eta *pribilegio* edo eskubide gehiagorekin handitutako dokumentuan ageri direnak.

1B. Lehenik, Santa Maria eliza, herriko hesitik kanpo zegoena, hesi barnera eramateko agintzen zuen dokumentuan eta, era berean, Aranatz lurraldeko hamarren eta

32 Nafarreran eta bereziki Sakana erdialde osoan, irailari esaten zaio *urria* eta urriari, aldiz, *lastaila*.

33 Irailaren 17a.

34 Beste dokumentuetan (Fortún, 1985; Ruiz, 1998) Oger agertzen da.

35 Azken bi atalak ez dira 1312koan ageri eta urte bat beranduago Engarrand gobernadoreak erantsi zituen 1312ko eskubideak zehaztuz.

primiziak, bai ogiarenak, hala ardoarenak eta baita ganaduarenak edo beste edozergatik jasotzen zirenak ere, guztiak Etxarriko elizari ordainduko zitzaizkiola eta, gainera, ezinezkoa izanen zen beste elizarik eraikitzea lurraldean, erregearen baimenarekin ez bazen (7aurki-binper).

2B. Kanposantua, aldiz, herritik kanpo eginen zela esaten da, baina ahalik eta gertuen eta tokirik egokienean³⁶ (7binper).

3B. Aranatz lurraldean hutsik geratu ziren herriak, elizak, etxeak eta etxaldeak desegin behar ziren eta ezin izanen zen eraiki Aranatz lurraldean Etxarrin ez bazen. Horrelakorik egiten ez zuenak erregearen jazarpena izanen zuen eta soilik antzinako hidalgok mantendu ahal izanen zituzten haien etxaldeak, baina inola ere ez berriak eraiki edo beste bati eman (7binper).

4B. Dokumentu honen aurretik erregeari ordaintzen zizkioten 3416 sueldoak *pecha*, *cena*, *pimienta* eta gainerakoengatik eta Santa Maria elizagatik ematen zizkioten beste 600 sueldoak hemendik aurrera ez zitzaizkien eskatuko (7binper-8aurki).

5B. Etxarriarrek, memento hartakoek zein ondoren etorriko zirenek, ez zuten zergarik ordaindu behar izanen eta, gainera, erregearen lurak emanen zitzaizkien (8aurki).

6B. Era berean, etxarriarrek ez zuten *lezta* eta *peajerik* ordainduko Nafarroako erresuma osoan (8aurki-binper).

7B. Aukera izanen zuten, halaber, bertan bizi zirenak eta etorriko zirenak lantzeko lur berriak egiteko eta urak eta basoak behar bezala erabiltzeko, aurreko pribilegioetan esaten zen moduan (8binper).

8B. Azoka eta San Migeleko feriari dagokienez ere, berresten da aurrekoetan esandakoa eta beste zerbait gehitu ere bai, hau da, San Migeleko ferian eta azoketan ere ez zuten *lezta* eta *peaje* zergak ordaindu behar izanen (8binper).

9B. Azoka eta ferietara etorritakoak ere ezin izanen ziren epaituak izan, bertan egingakoengatik baizik (8binper).

10B. Ordaindu beharreko *peajea* Los Arcos herrian bezainbatekoa zen (8binper-9aurki).

11B. Etxarriko azoka edo ferietara joanen ziren merkatariak ezin izanen zituen inork ez atxilotu, ez jazarri (9aurki.)

12B. Etxarrira bizitzera joandako gaizkileak, traidoreak salbu, aske eta seguru ibili ahal izanen zen Nafarroako erresuman, armadarako deitua zenean izan ezik (9aurki).

³⁶ *Kanposantuzar* toponimoa dugu egun oraindik Etxarri Aranazko elizaren iparraldean, berrehunen metrora gutxi gorabehera.

13B. Herria eraikitzeke arauak ezarri ziren, aurreko ordenamendua jarraitzeko esanez hesiaren barnean, egin ahal ziren etxe guztiak eraikitzeke aukera izanik, betiere horietako bakoitzak 36 ukalondo³⁷ luze eta 13 zabal zituela (9aurki-binper).

14B. Etxea egiteko urtebeteko epea ematen zen eta epearen barnean ez bukatzekotan, erregearendako geldituko zen lurra eta egindakoa (9binper).

15B. Herritar bakoitzak etxe bakarra izanen zuen eta norbaitek bat baino gehiago izatekotan, bat hartu eta bestea etorriko zen bati saldu behar zion. Salneurria merinoak edo etxegile maisuek ezarriko zuten (9binper).

16B. Hídalgoen batek etxea balu herrian eta ez balitz bertan bizi, haren jabegoa mantentzeko arma-gizon bat izan beharko luke bertan, baina ez zitzaizkion herritarren eskubideak kontuan izanen (9binper-10aurki).

17B. Urte bat eta egun bateko epean erabili gabeko etxea edo etxaldea erregearendako izanen zen eta honek saldu ahal izanen zuen (10aurki).

18B. Merkatariek, bertan etxerik ezean, ez zituzten herritarren eskubideak (10aurki).

19B. Herriko merkataria batek kanpoko beste merkataria batekin enpresa eginen balu, honek *peajea* ordaindu beharko luke Nafarroako erresuman eta ez balu horrela eginen herritar bezala zegozkion eskubideak galduko lituzke (10aurki).

20B. Ibaiaren ertzean, herriaren ondoan, zegoen lur eremua («a la Puente da Junt la agua» egungo *Kanpozelei* izanen litzateke), Lizarrerriko neurriko 150 *kafizada*³⁸ arte, baratzetarako hartua izan zedila eta zati berdinetan banatua, bat herriko etxe bakoitzeko eta bertan urte baten buruan fruta-zuhaitzak landatzeko (10aurki-binper).

21B. Aranazko lurrak, erabiliak zirenak zein erabili gabeak, etxarriarren artean banatzekoak izanen ziren, herritik gertuen zeudenekin hasita (10binper).

22B. Kontuan izanik etxarriarrek ez zutela zergarik (*cena*, *pecha*, *pimienta* ...) ordaindu behar, erregeak behartzen zuen herria etxe ona eta sendoa egitera berarendako, *Chapitel* edo garau azoka, Iruñeko *Chapitelaren* modura, eta honekin batera errota bere osagai guztiekin. Erregeak, dena den, bere kargu hartuko zituen bertan izanen ziren errotariak, ehoko zutenak ordainduko zuten hamalaurenarekin eta ezin izanen zuten beste inon eho. Era berean, labe bat edo gehiago behar balute eginen zuten etxarriarrek ogia egosteko eta errege³⁹ bakoitzeko 3 *dinero* ordainduko zituzten, erregeak bere kargu hartuz labeko langileak. Ezin izanen zuten beste inon ogia egosi, ez balitz

37 Luzera neurria, ukalondotik eskuko muturreraino doana.

38 *Cabiz* edukiera neurria zen eta normalean garau edo aleekin erabiltzen zen. Lurrari egokiturik, *cabiz* batekin erein zitekeen lur eremua adierazten zuen.

39 Edukiera neurria, ale edo gaurauekin erabiltzen zena: errege, errege erdia ...

feria eguna izanik jende ugari etorri eta ezin egin izana behar adina ogi bertako labeak. Horrela ez egitekotan, 5 sueldoko isuna ordaindu beharko zen, hidalgoek izan ezik (10binper-11aurki-binper).

23B. Etxarriko gobernua eta honen aukeraketa zehazten zen, 1313koaren oso antzekoa. 6 jurado eta maiorak hautatuko zituen herriak, horietatik bi hidalgo, eta hauek hiru gizon aukeratuko zituzten, horien artean erregeak edo gobernadoreak urte baterako alkatea izendatzeko. Juradoak urtero aldatuko ziren San Juan egunean. Alkateak epaile lanak izanen zituen (11binper).

24B. Almirantea ere izanen zuten, bertakoa, eta honek alkatearen epaiak burutu eta presoak hartuko zituen. Bera izanen zen, beraz, botere ejekutiboa Etxarrin.

25B. Herriko norbaitek bertako beste norbait mehatxatuko balu («hoviese miedo o recelo de algun otro») eta lekukoak aurkeztuko balitu azken honek alkatearen aurrean, honek eta juradoek epea markatuko zuten ezer ez gertatzeko. Hala ere, mehatxatzen jarraituko balu besteak, 60 sueldo isun (*calonia*) moduan ordaindu beharko lituzke eta preso gelditu aipatu epea pasatu arte (11binper-12aurki).

26B. Herritarren arteko borroka gertatuko balitz, alkateak eta juradoek, borroka gertatutako egun berean borrokalarien arteko etena markatuko zuten, urte batekoa. Eta horietako batek hurrengo hamar egunetan ez balu etena onartuko, 30 sueldo isun moduan ordainduko zuen (12aurki).

27B. Herriaren barnean norbaitek azkon, lantza, gezi, harri edo beste edozerekin kolpea botako balio beste bati zauritu gabe, isun moduan 250 sueldo ordainduko zuen; zaurituko balu bestea, preso hartu eta eskuin eskumuturra galduko zuen edo 25 libera ordaindu kartzelatik ateratzeko; eta zauritua hilko balitz, hiltzaileak 60 libera ordaindu beharko zituen heriotz zigorra ez jasotzeko (12aurki-binper).

28B. Gizon batek beste gizon edo emakume bat ileetatik hartuko balu edo muturrekoa emanen balio, isun moduan 60 sueldo ordainduko zituen. Lurrera botako balu 100 sueldo ordainduko zituen. Laban, ezpata, lantza, makila edo harriz zaurituko balu eta odola eginen balio, almiranteak preso hartuko zuen erasotzailea eta hala izanen zuen jakin arte zauritua hilen zen ala ez. Ez balitz hilen, kolpe bakoitzagatik 100 sueldo ordainduko zituen erasotzaileak kartzelatik ateratzeko. Gorputz atalen bat galduko balu zaurituak, erasotzaileak 25 libera ordainduko zituen atal bakoitzeko. Eta, azkenik, zauritua hilen balitz, 50 libera ordainduko zituen bere burua babestu nahian suertatu balitz hilketa, eta hil eginen zuten beste modu batera izanez gero (12binper).

29B. Herritar batek beste bat irainduko balu («clamare a otro fiello de puta o traidor») edo borrokatzeko zirikatu balu, isun moduan 20 sueldo ordainduko zituen (12binper).

30B. Zaurituak bere testamentuan edo alkatearen, juradoen, almirantearen edo gizon onen aurrean egindako dokumentu publiko batean esanen balu erasotzailearen

izena, hau horrela hartua izanen zen besterik frogatu artean. Gauza bera gertatuko zen hildakoen senideek eginen balute salaketa (12binper-13aurki).

31B. Zaurituak edo hildakoaren senideek ez balute salaketarik eginen, almiranteak eginen zuen aipatu salaketa gertaerak frogatuko balira (13aurki).

32B. Norbait harrapatuko balute pisu eta neurri trukatuak erabiliz, aldi eta neurri bakoitzeko, isun moduan, 60 sueldo ordainduko zituen (13aurki).

33B. Herritarren artean frogaturiko zorrei edo eginbeharrei maiz ez balie norbaitek aurre eginen, herritarra izanez gero 5 sueldo eta kanpotarra izanez gero, aldiz, 7 ordaindu beharko zuen. Eta hurrengo egunean ordainduko ez balitu, orduan 10 sueldokoa izanen litzateke isuna (13aurki-binper).

34B. Behin betiko epaiaren aurretik bi aldeak alkatearen aurrean ados jarriko balira, 5 sueldo ordaindu beharko lituzkete adostasuna lortzen laguntzeagatik (13binper).

35B. Alkateak audientzia izanen zuen astean hirutan herritarrendako: astelehena, asteazkena eta ostirala. Eta egunero, aldiz, kanpotarrendako, betiere arazo larriak ez izatekotan (13binper).

36B. Norbaitek bere ondasunak beste bati ordaintzeko edo norbaitek eskatuta herrian utziko balitu, gau bakoitzeko 60 sueldoko isuna ordaindu beharko zuen. 30 eguneko epean bertan izanen balira ondasunak, alkateak saldu ahal izanen lituzke eskatzaileari ordaintzeko ateratako diruarekin. Urte bat baino lehenago ondasunen jabeak beretako eskatuko balitu eta bereak zirela frogatu, alkateak gordetako dirua itzuli beharko litzaioke (13binper-14aurki).

37B. Salaketa faltsuak ekiditeko alkateak eta juradoek salaketa egin eta hurrengo 40 egunen barruan behin betiko erabakia hartuko zuten eta hurrengo hamar egunetan publiko egin (14aurki-binper).

38B. Eta, azkenik, dokumentu honetan aipatzen ez diren gainerako egoera edo kasuetarako, Jakako Fueroa ematen zitzaizela aipatzen da eta hori guztia, betiko, erregearen sigiluarekin sinatu zen 1351 urtean, aurrean izanik Iruñeako apezpikua Thomas de Ladid (Ruiz, 1998: «el obispo de Pomplona, vos maestre Thomas de Ladit»), Gil Garcia de Aniz Chancillerra eta Juan Ramirez de Arellano gobernadorearen *lugar teniente* beste batzuen artean. Era berean aipatzen dira, Etxarritik dokumentua berritzera joandakoak, ontzat emateko, Garcia Miguel de Elcart eta Peire Ibañez de Lizarraga, Etxarriko apezka eta notarioa hurrenez hurren.

Pero Sanchez de Artaixo notarioak egin zuen dokumentu honen kopia Garcia Miguel de Elcart Etxarriko bikarioak eta Peru Ibañez de Lizarraga Etxarriko notarioak eskatuta 1352ko abenduaren 24an: « que io les ficiese publico instrumento de vidimus de ella esto fue fecho Viernes ante la fiesta de Navidad año Domini milisimo trescientos quingesimo secundo» (14binper-15aurki).

Dokumentu honen arabera gobernatzen ziren etxarriarrak, beraz, 1351. urtetik aurrera, 1312koan baino era erosoagoan, zerga edo kontribuzioei eta lurren erabilerari dagokienez behinik behin. Karlos II.aren aginduz Juan de Mauleon izan zen dokumentuan aipatzen diren eraikuntzako lan guztiak egiteko arduraduna.

3.3. Hamarrenari buruzkoak

3.3.1. 1351-1412 urte bitarteko hamarrenak

Ondoren, 15aurki-17aurki orrialdeetan, 1351 eta 1412 urteen arteko Aranazko hamarrenak nola eta nori ordaintzen zitzaizkien agertzen da. Eta daturik aipagarrienak horien artean, hurrengoak:

- Lehenik, aipatzen da ea kontuan izan behar ziren labeengatik ordaindu beharrekoak Etxarri Aranatz sortzeko hustuak izan ziren herrixketako apezai: «por que sea declarado si los Abades que eran de las villas de la Comarca que fueron despobladas por venir a poblar a la d(ic)ha Villa deven haver, ó no de los emolumentos del forno =».
- 1355ean 16 libera eta 10 diru karlin beltzak ordaindu behar ziren hustutako herrietako apezengatik. Diru «beltz» horiek zuri bihurtutakoan, 8 libera eta 6 diru direla esaten du. Erregearendako ehun eta lau kafiz⁴⁰, bi laurden eta almute⁴¹ bat ordaindu behar ziren, heren bat kendu ondoren herri hustuetako apezengatik. Eta geroxeago aipatzen du ehun eta hogeita bat kafiz eta laurden bat zirela erregeari eman beharrekoak. Bitxikeria da nola adierazten duen aipatu kopuru hau, euskararen zenbaterako eredua erabiltzen baitu gaztelaniaz: «por partidas *seis veintes* y un Cafiz y un quartal =» (15binper).
- Ganadu larri eta xeheगतiko hamarrena dela eta, 40 kafiz ordainsari moduan eta beste 10 kafiz «beneficio» bezala.
- Etxarri Aranazko Garcia Miguel de Elcart bikarioari 40 kafiz ordainsaritako eta elizarendako beste 20 kafiz gari.
- Taula Artzedianoari 26 kafiz eta bi erregu⁴² gari.
- Oloari dagokionez, 116 kafiz eta erregu bat Muntiñano, Unanoa eta Arbizuko parroketako apeznetik aterata edo kenduta («revatidos»).
- 1412 urtean, garagarrari dagokionez, Taulako Artzedianoari 26 kafiz eta bi erregu.
- Errota eta labeengatik 120 libera beltz («prietas») urteko eta bere balioa zurietan («blancas») 96 liberakoa zela dio, euskararen zenbaki sistema erabiliaz atzera berri: « quatro veintes y diez y seis libras =».
- 1412ko maiatzaren 28an erregeak Etxarri Aranazko eta Lakuntzako elizen hamarrenak eta gainerako eskubideak Iruñako Santa Maria elizari eman zizkion.
- Azkenik, zenbait kapilautza aipatzen dira eta, amaitzeko, Iruñako Entzutegi Episkopaleko idazkariak, Francisco de Echalecu jaunak, sinatzen du Liburu Handitik egindako kopia hau: «hice sacar esta copia del libro grande» (17aurki).

40 4 erregu edo 16 almute.

41 Erreguaren laurdena.

42 «Robo», 4 almute edo kafiz laurdena.

3.3.2. *Etxarri Aranazko hamarrena jaso eta banatzeko modua*⁴³

Iruñako Katedrala Etxarri Aranazko eta Ergoieneko elizen nagusia zen eta bertakoen urte osoko fruituen hamarrenak zegozkion, bai soroko laboreena (garia, oloa, artoa...), bai ganadu larri (behi, behor...) eta xeheena ere (txerri, ardi, ahuntz...)⁴⁴.

Jasotako guztiaren hiru laurden katedralarendako ziren eta beste laurdena, Etxarri Aranazko elizako kabildoarendako. Kabildo honetatik zazpi alde jasotzen zuten bere zatia: horietatik lau Ergoienakoak ziren, bi Lizarragakoak eta bana Dorraon eta Unanun (12 erregu bakoitzari); bat Etxarri Aranazko bikarriotza edo elizarena (18 erregu); beste bat Ergoieneko eta Etxarriko lau bikarioena (60 erregu bakoitzari); eta, azkenena, Taulako Artzedianoarena (90 erregu gari eta 90 erregu olo).

Lakuntzak ere Katedralari zor zion hamarrena ordaintzea eta 100 erregu ematen zituen Lizarragan eta beste 10 erregu Etxarri Aranazko elizarendako.

Oloa ez balitz ordaintzeko, garitan ordaintzen zen, baina kopuru erdia emanez, hau da, 90 erregu olo beharrean, 45 erregu gari eman behar zituzten

Jarraian, erabat zehazturik dator dokumentuan, orain arte aipatutakoaz gain, nolako ordainketak zituzten hamarrena jasotzerakoan Ergoienan.

- Lizarraga. 3 erregu gari ordaindu behar zitzaion Lizarragako bikarioari, beste hainbeste Unanukoari eta 1 baino ez Dorraokoari, gari, arto eta gainerakoen banaketa egunetan egiten ziren bazkarietako ogiagatik. Honetaz gain, Etxarritik gurdiekin zihoazenei ere almute («almuteco») bat ogi eta pinta bat ardo garia jasotzerakoan; eta almute erdia eta pinta erdi ardo artoa jasotzera joandakoan. Etxarriko Hamarrenaren Etxera («Casa Dezmal») iristerakoan, garia eta gainerakoak garraiatzen zituztenei bi trago ardo eta almute bat hiru pertsonari. Honi gehitu behar zitzaion erregu bat beste gainerako laboreena («menucel»⁴⁵), garraiatzeko idi pareta eta gurdi bakoitzeko. Artoaren kasuan, hiru almute arto zamalanak egiten zituzten animaliangatik eta ardo trago bat persona bakoitzari. Lizarragako hamarrenak jasotzeko egunean, bertako bikarioaren etxean, honi eta benefiziatuei bazkaria eman behar zien arrendatzaileak (hamarrena jasotzeko ardura zuena) eta horretarako eramaten zituen aharikia, behikia, uso pareta eta baita espeziak eta urdaia. Benefiziatuei, bestalde, zortzina erreal ematen zien. Bazkarira hiru kontzejukide ere joaten ziren eta Lizarragako kontzejuak berrogeita hamabina erreal ematen zien bi erregidoreei. Azkenik, Etxarriko Hamarrenaren Etxetik, bazkari horretarako, 11-12 pinta ardoko hiru pitxar eramaten zituzten eta garraialariei ardoa ere ematen zitzaien herri bakoitzeko tabernan.

43 «Forma y estilo de recoger, y repartir los Diezmos de esta Villa de Echarri Arañaz» (27 aurki-31 binper).

44 «La santa Yglesia Cathedral de la Ciudad de Pamplona es Abad de las Parroquiales de la villa de Echarri Arañaz, los tres lugares de Lizarraga, Torrano y Unanoa que componen la Valle de Ergoiena».

45 Txirimiskeriak, garrantzi handikoak ez diren frutuak. Garia, oloa eta artoa ez direnak. «Menuencia».

- Torrano eta Unanu. Hurrengo egunean eramaten zen bi herri hauetako garia eta gainerako laboreen («menucel») hamarrena Hamarrenaren Etxera, Unanuko bikarioarenean bazkaria eginez, Lizarragako bezalakoa, baina aharikia, behikia, bi uso eta hiru pitxar ardo eramanik horretarako. Bazkaria, Unanuko eta Dorraoko apezendako eta bertako erregidore eta Ergoieneko alkatearendako, zein boltseroendako egiten zen. Unanuko bikarioaren emakume zerbitzariari, bere lanagatik, 8 erreal, janari ongailuak («especies») eta urdaia ematen zitzaion. Dorraoko erregidoreari 4 dukado eta Unanukoari 50 erreal. Honetaz gain, Dorraon, bikarioaren etxean klabero edo hamarrenaren arduradunak ere bere janari zatia (ahariki, behikia, uso pareta, oilasko bat eta ardo zahatoa) darma eltzerako, betiere ez balitz Unanuko bazkarira joanen. Zerbitzariari 2 erreal ematen zaizkio oilaskoa eta usoengatik eta garraialariei ogia eta ardoa gorago esan den moduan.

Artoaren kasuan, bazkaria soilik Etxarritik doazenendako eta hiru bikarioendako prestatzen da, eta jateko aharikia eta kapoi bana Unanun eta Lizarragan, eta oilaskoa, aldiz, Dorraon. Emakume zerbitzariari launa erreal lehen bi herrietan eta bi Dorraon, erregu bana artoarekin, edandako ardoa aparte ordainduz.

Lizarragan eta Dorraon, artoaren kasuan, dirutan ordaintzen da ardo pitxarra («un cantharo de vino») eta Unanun lau erreal arrunt. Arbizu eta Bakaikutik ere eramaten dira Hamarrenaren Etxera garia, artoa eta gainerako laboreak urtero eta hauen garraioa arduradunak eta benefiziatuek ordaintzen dute.

- Hamarrenaren Etxean bilduta laboreak, Etxarri Aranazko bikarioak eta benefiziatuen⁴⁶ klaberoak banaketarako eguna ezartzen zuten eta idatziz gaztigitzen zitzaion Ergoieneko hiru bikarioei nahi bazuten banaketaren momentuan eta ondorengo bazkarian bertan egoteko arrendatzaile edo administratzailearen etxean. Beste zenbait kargu ere gonbidatzen zituzten, hala nola, beste benefiziatuak, alkateak eta sekular zenbait ere bai. Eguneko gastuak, hiru laurdenak elizako abadeak ordaintzen zituen eta beste laurdena zazpi benefiziatuek. Eguneko, Lizarragako eta Unanuko banaketak egiten dituenari («medidor») lau erregu gari ematen zitzaizkion; morroiei eta eskribauari («escribiente raiador») erregu bana gari, etxeko neskameari eta sukaldariari bezala; eta Hamarrenaren Etxeko gizonari lau erregu gari lumeagatik («por la Vallena que se gasta») eta ura iturritik ekartzeagatik.

Eta bi klaberoei (elizakoari –benefiziatuetako bat–, zein sekularrari –administratzailea dena–) hogeina erregu bakoitzari. Gainerako guztitik, elizako abadeari (edo arrendatzaileari) hiru laurdenak ematen zaizkio eta laugarren laurdena zazpi benefiziatuei. Azken honetatik, gorago aipatu banaketak egiten dira jarraian.

46 Espainiako Erret-akademiak (RAE, d. g.), bere seigarren esanahian, horrela definitzen du «benefiziatu» hitza: «6. m. Conjunto de derechos y emolumentos que obtiene un eclesiástico de un oficio o de una fundación o capellanía».

3.3.3. *Abere larri zein xeheen hamarrenak egiteko modua Etxarri Aranatzan*⁴⁷

Ganaduen hamarrena, urtero, garagartzaroaren hogeita lauan, San Juan egunarekin, jasotzen zen Etxarri Aranatzan bazkalondoan. Elizako klaberoa etxez etxe joaten zen bere morroiarekin eta abadearen klabero sekularra (hamarrenaren arrendatzailea gehienetan) eta honen morroiekin, hauek gaztendako saskiak zeramatzatela.

Abere larrien kasuan, txekor edo bigentxa balitz, 3 marabedi⁴⁸ hamarren moduan eta bat primiziarako. Behorreatatik, 6 marabedi hamarren eta 3 kornado primiziagatik. Astakumeengatik («cría de guaran») 9 marabedi hamarren eta 3 primizia.

Abere xeheei zegokienez, txerri, ardi eta ahuntzen kasuan buru bakoitzeko 3 kornado hamarren eta bat primicia. Lau eta zazpi buru artean izanez gero abere mota berekoak, aldiz, hamarren erdia, hau da, 24 «maravedí» eta 6 primiziagatik. Eta zortzi burutik aurrera, hamalau bitartean, hamarren osoa, hau da, 6 «tarja», eta 12 «maravedí» primizia. Hamalau burutik gora, hemezortzi artean, hamarren eta erdi, 2 erreal hamarren eta erreal erdia primizia. Eta hemezortzi burutik aurrera, bi hamarren, 12 «tarja» beraz, eta 3 primiziagatik. Horrela egiten zen Etxarri Aranatzan, Lakuntzan eta Ergoieneko hiru herrietan.

Lakuntzan San Juan egunean goizetik jasotzen ziren bikarioa, sakristatua eta alkatea bertan izanik eta jasotako gaztetatik bi dira bikarioarendako eta bana alkate eta sakristauarendako.

Ergoienan, aldiz, San Pedro egunean jasotzen da hamarrena, goizean Lizarragan eta Dorraon, ardiak eta ahuntzak bereizi gabe.

Bestalde, Urbasako eta Andiako belarrak eta urak gozatzeagatik, bertako abadeak («el Abad de Urbasa y Andia») jasotzen zuen hamarrena eta primizia Etxarri Aranazko benefiziatuen laurdenetik hartua zegokiona, gaztaren kasuan erdia. Eta benefiziatu hauek galtzen zutena ordezkatzuz, Arañako lihoaren hamarrena («el diezmo del lino del termino de Araña que esta señalado por dezmarío de Echarri») ematen zitzaien.

Arañako eremuari zegokionez, 1624 (azaroaren 6a) eta 1625eko (irailaren 13a) epaien arabera, Arbizuarrenak ziren 250 erregu azaleran («robadas de heredades»). Gainerakoa Etxarri Aranatzi zegokion.

Azkenik, Arbizuko hamarrenen erdia Etxarri Aranatzek jasotzen zuen bertaraino eramanik eta beste erdia Arbizun geratzen zen. Etxarriko eremuan soroak zituzten bakaikuarrek ere, hamarren moduan bi heren eta bat primiziagatik, ematen zuten.

47 («Modo de Dezmar por la cria de ganados maiores como de los menores») (32 aurki-34 binper).

48 Egun oraindik, hirurogeitik gorako urteak ditzuten etxarriarrek erabiltzen dute txanpon edo moneta honen izena, bereziki aiaptzeko norbait txiro edo pobrea dela adierzteko: *Orrek eztikok lau maadi!* (Horrek ez zeukak lau marabedi!).

3.3.4. 1694ko epaia Etxarri Aranazko Santa Maria elizaren hamarren eta primizien gainean⁴⁹

Aipatu datan eta hurrengo urteetan mendea amaitu bitartean, hainbat epai behar izan zituzten Aranatz aldean, hamarrenak eta primiziak nola eta non ordaindu behar ziren argitu eta zehazteko.

Aurreko mendeko 1533-1537 urteetako auziaren ondorioz ezarri ziren (Erdozia, 2017, 269. orr.) 24 mugarri Arbizuren inguruan eta arbizuarrek, oraingoan ere, hala berretsi zuten, 24 mugarrien barneko eremua haiena eta ez beste inorena zela eta Arañazko lurren gozamedua, aldiz, arañaztar guztiena. Eta, gainera, 24 mugarrien eremua gehiago zehaztu zuten: Arakil ibaia eta Lakuntzako mugarainokoa iparrekialdetik; *Sarrarte*, *Acarrunza*, *Zabalarte* ekialdetik; *Mari Mar(ti)n Araia*⁵⁰ mugariraino, *Pedro Lazcano*-ren soroa, *Aiztondoako* eremua, *Arnaz*, *Aizartea*, Arruazura doan bi-dean Mundiñanoko ermitaraino hegoekialdetik: eta Utzubarko basoaren hegaletik Soraberrietako larreak mendebaldetik; *Sagarburua*, *Insuspe* eta *Loinaz* eta *Zuarte* Arakil ibairaino iparmendebaldetik; eta, azkenik, Arañakoak iparraldean.

Alde bateko eta besteko eskaerak eta arrazoiak entzun ondoren, epaiaren berri ematen digu dokumentuak. Hasieran berretsi zituen Arañaz elkartearen eskubideak eta hauen arabera Arbizu, Unanu eta Arañaz elkartearen eremuak eta hamarrenaren gaineko betebeharrak zehaztu zituen ondorengo moduan: Arbizu (24 mugarrien barnekoaz gain, lehen aipatutako eremuak eta bereziki zehazturik Arañako 250 lur erregukoa); Unanu (Bertako elizarena zehaztu zen *Ziskarte* errekatik Lezizako ibairainokoa, *Mundiñanotik* Unanuraino); ganaduaren, gaztaren eta artilearen hamarrenei dagokienez, belarrak eta urak alokairuan zituzten abereenak Etxarri Aranazko elizari zegozkiola erabaki zen, eta bertako ganaduena, aldiz, ganadu jabearen herriko elizari.

Epaia 1694ko azaroaren seian, larunbatarekin, eman zuten Miguel de Ylarregui, Francisco de Ulzurrun eta Diego de Echarren lizentziatuek, azken honen ostatuan Iruñan. Idazkari lanak Mar(ti)n J(ose)ph de Eiaralar notarioak egin zituen.

Aurrerago, aldaketa zenbait izan zela dago adierazita: *Vitoria* edo *Victoria* Arbizurako utzi zen, *Vidaul* Lakuntzarako eta *Aizartea* eta Utzubarko hegaletik hegoaldera Unanurako.

Ondoren, auziko alde guztiei, herrietako bikarioei eta Etxarri Aranazko kabildoko benefiziatuei (Urdiaingo elizako abadea zen Luis de Zubiria horietako bat) jakinarazi zitzaizen epaiaren erabakia, bertan aipaturiko eremuen mugarritzeak («la mesuracion»⁵¹

49 «Las diferencias que entre si tienen las dichas partes sobre las diezmas y primicias de la tierra y comunidad de Arañaz» (+1aurki-+12binper).

50 *Arria* hurrengo zerrendan.

51 Neurketa.

y amojonamiento de las veinte y nueve robadas, y treinta y siete pérticas») nola egin behar ziren ere zehaztuz: «con asistencia de Pedro de Erdocia vez(in)o de la dha villa de Echarri, y Juanes de Jorge vezino de la de Arbizu quienes hicieron la primera mesuración», «y con la pértica Real, que es quatro baras y media menos medio dedo, y atravesando a la punta el palillo hagan la mesuración».

Jarraian, Arañazko eremuan, Arbizurenak ziren 250 lur erreguen mugarritzea dator dokumentuan Fernando de Aldaburu eskribauak idatzita, aurretik jarrita zeuden mugarririk oinarri harturik, horietako hirugarrenetik bederatzigarrenera modu zehatzean adierazita non kokatu 7 mugarri berriak:

- (1) Alleko eta Elkorriara doan bidean zegoen hirugarren mugarrira, Domingo de Huarteren soroan, eta bertatik atera eta Arbizu aldera hogeitau pertiken neurrian atzeratu zen bide bazterrean jarririk, Garcia de Lazcozen eta Juanes de Lacunzaren soroen artean, azken honena Etxarri Aranazko eremuan geratuz hamarrenaren auzian.
- (2) Laugarren mugarrira Domingo de Huarteren soroaren gainaldean zegoen eta atzeratu zen Arbizu aldera aurrekoa bezala, Pedro de Huarteren soroaren puntan jarririk, Domingorenarekin eta Artaindea errekarara doan bidezidorrarekin muga eginez. Domingorena Etxarri Aranazkoa geratu zen.
- (3) Bosgarrena Miguel de Lacunzaren soroan zegoen, Artaindeako bidezidorraren goikoaldean eta atzera eginez aurrekoak bezala, Gabriel Peruzurquin-en soroaren gainaldean jarri zen, eta soro honen zatirik handiena Etxarri Aranazko hamarrenaren barnean geratu zen.
- (4) Seigarrena, Garcia de Arbizu Marinachonecoa etxeakoaren soroan zegoen eta atzera eraman zen Catalina de Yraurgui, Pedro de Juanto-ren alargunaren soroari itsatsita dagoen gain batean. Soro honen zatirik handiena Etxarri Aranazko hamarrenaren barnean geratu zen.
- (5) Zazpigarrena, aurreko Garciaren eta Leonor de Verastegui-ren soroen arteko ertzean zegoen eta Martin de Lacunzaren (Domenzain etxeakoa) soroaren ertzean jarri zen. Soro hau Arbizuko hamarrenaren barnean geratu zen.
- (6) Zortzigarrena, Gabriel de Leiza eta Maria de Garciandiaren (Pedro Camusen alarguna) soroen artean zegoen. Garcia de Lazcoz «menor» eta Martin de Lazcozen soroen artean jarri zen. Garciaren soroa Arbizuko hamarrenaren barnean geratu zen.
- (7) Bederatzigarrena, Margarita de Verastegui eta Luis de Agoadoren soroen artean zegoen eta hogeitau pertika baino gehiagoko distantzian Arbizu aldera jarri zen Maria de Huarte alargunaren eta Juanes de Bacaicoa-ren soroen tarteko ezpondan, goikoaldean. Mariaren soroa Etxarri Aranazko hamarrenaren barnean geratu zen.

Atzera berriz, Fernando de Aldaburu eskribauak elizetako arduradunei (Etxarri Aranatz, Arbizu, Lizarraga, Lakuntza, Iruña) eta benefiziatuei (Urdiaingo Luis de Zubiria abadeari) jakinarazpena egin ziela dator jasorik.

3.3.5. XVIII. mendeko hamarrenaren beste zenbait gorabehera.⁵²

Klaberiako liburuan, bost orri oso, aurki eta binper, hutsik ageri zaizkigu eta horien ondoren, beste bost idatzita, soilik lehen hirurak zenbaturik 38, 39 eta 40 zenbakiekin.

Horietako lehenean, 38.ean, daude jasoak aipatu bitxikeriak:

- Herria bi aldiz suertatu zela erreta, 1530ean lehenik eta 1679an bigarrenik.
- 1377 urtean, Comptos-eko ganbaran ageri den moduan, sortu zituzten Etxarri Aranazko «Benefizioak» «razionero» izenarekin.
- Etxarri eta Ergoieneko hamarrenak erregearenak ziren eta 1412an Karlos III.ak Katedralaren izenean jarri zituen, laurdena utziaz Kabildoari edo Benefiziatuei.
- Eliza ere erregearena omen zen, Luis I.a Hutinek herriari eman zion arte.
- Lubian⁵³ jaunaren epaiak datoz jarraian bata bestearen atzetik:
 - 1740ko azaroaren 23koa: bikarioaren aurkako auzia, zenbait lehentasunen gainean.
 - 1741eko abuztuaren 11koa: banaketa zenbaiten gainean.
 - Datarik gabea: apezak mandatuen giltzak emateko sakristau nagusi edo jabeari.
 - 1741eko martxoaren 15koa: apezak meza nagusiak eman zitzaizkien ordu zehatzetan (neguan, jaiegunetan, beti goizeko hamarretan; ferietan, San Miguel egunetik martxoaren 1.a arte, goizeko bederatzietan; eta, azkenik, martxoaren 1.etik San Miguel eguna arte, goizeko zortzietan).
 - (1741) azaroaren 24koa: sakristauak kabildoko benefiziatu zein apezari bi mandatu emateko. Gero hirura zabaldu zen.
 - Datarik gabe eta dirudienez ez zen Lubianena hauxe: Lorenzo de Ybañezen aurrean, bikarioak sakristaua izendatzeko bertan zeuden benefiziatuekin batera.
 - Data zehatzik gabe eta Lubianena hau ere: bikarioak betiko maiordomo izateko eta honetaz gain herriak beste bat izendatzeko aukera besteak utzitakoan. Eta paragrafo berberan dio 1740tik 1757 arte beste epai eta probidentzia hartu zirela⁵⁴.
- Bigarren mailako mezak (hiletak, urteurren, bederatzituren eta Trinitatearenak bereziki) benefiziatuek esanen zituzten⁵⁵.
- Kabildoan ez zitzaion giltzarik («claberia») emanen ordenaturik ez bazen. Adibide moduan aipatzen da Martin de Galarzaren kasua, orden nagusietan ez baitzuen ordenatu nahi izan eta benefiziatu moduan hogeita hamar urte baino gehiago izanik ere Juan de Yxurco (sic) eta Francisco de Armendariz apezekin batera, ez zioten «claberia» eman, berak eskatu izanagatik. Gauza bera egin zen Martin de Berasteguirekin, zein 1724tik aurrera behin-behineko («estaba por Ynterin de cura») eta soilik sakramentuak administratzeko zegoen⁵⁶.

52 «Razon de algunas curiosidades, y antigüedades, q(ue) ha habido en esta villa».

53 Fermín de Lubián, sangüesino, licenciado en Derecho y prior del cabildo (Jusué, 1994).

54 Paragrafo honen ezker aldeko marginean ondorengoa dator: «En el año de 1308 fueron extinguidos los templarios».

55 Honen ezker aldean: «Mas en treinta de noviembre de 1766 se trajo el reloj que oi tiene».

56 Eta honen ezker aldean: «En el de Abril de 1767 estermينو a los Jesuitas el rey».

- 1753 arte, Aita Santuak izendatzen zituen apez benefiziatuak hutsunea suertatzen zen tokietan eta urte honetan erregeei utzi zien eginbehar hau.
- 1761 urtean, Aita Santuak baimena eman zuen, Garizuman, haragia jateko, aste bakoitzeko asteazken, ostiral eta larunbatean, eta Aste Santu osoan izan ezik.
- 1751n, Aita Santuak atzera berriz, agindu zuen apezek hiru meza dohainik eman zituzaten Dominesantu egunaren⁵⁷ ondorengoan.

Dokumentuko 39., 40. orri zenbatuetan eta hurrengoetan, ezker aldeko marjinean 1754 eta 1774 artean urtez urteko datak idatzirik daude. Lehenik, hasieran, izenburu moduko bat dakar: «Razón de los Frutos que no se entregan los Claveros eclesiásticos en especial desde el año de 1754, y no se ponen en este libro los linos, y menuceles por ser cosa poca lo que les toca a cada Beneficiado».

Ondorengo taulan aipatu urte horietako guztietako datuak bildu ditut, bertan zehazturik noiz burutu zen hamarrenaren banaketa, zein izan zen banaketaren arduraduna («clavero»), zer jaso zuen benefiziatu⁵⁸ bakoitzak eta zer gastu izan zuten hamarrenaren fruituak jasotzerakoan egiten zen bazkariagatik (bi pinta ardo morroiendako ere sartuta daude gehienetan). Gastuetan, bigarrena, beti da ardoarena.

6. taula. benefiziatuek hamarrenetik jasotako zatia eta bazkariaren gastuak

Data	Klabero	Garia	Artoa	Gastua
1754	Joseph de Armendariz*	80 erregu	62 erregu	53 erreal eta 24 marabedi
1755	Manuel de Yriarte	61 erregu	35 erregu	43 erreal eta laurden («quartillo»)
1756	Mig(ue)l Antonio Aldaburu	42 erregu	61 erregu	56**
1757	Domingo de Artieda	66 erregu 4 almute	66 erregu 11 almute	65 erreal
1758	Martin de Miguel de Echarri	54 erregu 9 almute	38 erregu 9 almute	32 erreal 22 mara-bedi (bi pinta ardo) 12 erreal 28 marabedi (bi pinta ardo)
1759	Joseph de Armendariz	37 erregu 11 almute	64 erregu	26 erreal 30 marabedi (bi pinta ardo) 15 erreal 29 marabedi (bi pinta ardo)
1760	Manuel de Yriarte	64 erregu	64 erregu	36 erreal 12 erreal eta 13 marabedi
1761	Miguel Antonio de Aldaburu	56 erregu 4 almute	?***	30 erreal 7 marabedi 10 erreal 5 marabedi
1762	Domingo de Artieda	33 erregu 2 almute	48 erregu 5,5 almute	30 erreal 11 erreal 26 marabedi

* Obanoseko bikarioa izandakoa; ** Errealak suposatzen da, ez baitu aipatzen zer moneta zen; ***Zenbaki ulertezina.

57 Santu guztien eguna.

58 Benefizioa jasotzen duena. Elizako lanak egiteagatik elizgizonak jasotzen duen saria da benefizioa.

Data	Klabero	Garia	Artoa	Gastua
1763	Martin de Miguel de Echarri	31 erregu 14 almute	35 erregu 13 almute	33 erreal 35 mara-bedi (bat gehiago) 12 erreal
1764	Pablo de Yxurra	63 erregu	69 erregu	49 + 1 + 2,5 erreal 14 erreal 16 marabedi + 24 marabedi
1765	Joseph de Armendariz	34 erregu 10 almute	54 erregu 1 almute	28 erreal 10 marabedi 13 erreal («flojos»)
1766	Manuel de Yriarte	48 erregu 5 almute	54 erregu 4 almute	35 erreal 10 marabedi + 32 marabedi (ardoa) 14 erreal 20 marabedi + 28 (ardoa)
1767	Miguel Antonio de Aldaburu	66 erregu	62 erregu 2 almute	53 erreal 15 marabedi 2 peso
1768	Domingo de Artieda	36 erregu 4 almute	46,5 erregu	41 erreal 10 erreal («flojos») 24 marabedi + 28 (ardoa)
1769	(Ez dago aipaturik)	56 erregu 12 almute	50,5 erregu	38 erreal 12 marabedi 12,5 erreal («flojos») 24 marabedi
1770	Pablo de Yxurra	45 erregu 7 almute	28 erregu	27 erreal 26 marabedi + 10 «chono» (ardoa) 10 erreal («flojos»)
1771	Manuel de Yriarte	43 erregu	55 erregu 12 almute	30 erreal 20 erreal 10 marabedi + 30 (ardoa morroien-dako)
1772	Miguel Antonio de Aldaburu	52 erregu	64,5 erregu	43 erreal 28 marabedi 18 erreal + «diezio-cheno» bat
1773	Domingo de Artieda	51 erregu 7 almute	55 erregu 2 almute	38 erreal 8 marabedi 18 erreal 12 marabedi
1774	Vicente (besterik gabe)	44,5 erregu	(Ez dakar)	5 peso + erreal 1 (ardoa)

Azken urte honen ondoren, zerrenda oso nahasi bat dator taulan jasotako informazioaren ondoren. Bi zerrenda dira, 1764ko eta 1787ko hamarrenaren emaitzak jasozten dituztenak, beste datu esanguratsurik gabe.

Bistan da, 1754-1774 urteetako datu hauek ikusirik, klabero lanak txandakaturik burutzen zituztela apezten artean. Hogeita bat urte horietan zazpi klabero ageri dira, horietako hiruk (Manuel de Yriarte, Miguel Antonio Aldaburu eta Domingo de Artieda) lau aldiz harturik aipatu ardura, beste batek (Joseph de Armendariz) hiru aldiz, bi aldiz beste bik (Martin de Miguel de Echarri eta Pablo de Yxurra) eta behin baino ez azkenak (Vicente). 1769ko klaberoa zein zen ez dago aipaturik.

Amaitzeko, 1793 urtean ez zela «subsidio»-rik egon jartzen du, eta klabero Lizarragabengoko (*Lizarravengoa*) abadea izan zela. Eta 1796an *Vicente* apezka izan zen klabero eta «subsidio» bikoitza eman zuen.

4. DOKUMENTUKO ZENBAIT DATU ESANGURATSU

4.1. Etxeen izenak

- Liburuko kapilautzak, eliza fundazioak eta gainerako dokumentuetan hainbat herritako etxeen izenak ageri dira aipaturik, gehienak Etxarri Aranazkoak (*Erre-ronekoa, Jauregikoa, Adatxenekoa, Profeta, Arginarena, Mielttorena, Txorrotxonekoa, Iraurgirena, Lakuntzarena, Biarrus*⁵⁹ eta *Osamartze*). Lizarraga (*Motxaleanekoa* eta *Indianorena*), Lakuntza (*Argizarilenekoa* eta *Zurinekoa*), Arbizu (*Domenzain* eta *Marinatxonekoa*) eta Lizarragabengo (*Jakanekoa*).

4.2. Toponimo eta baselizak

Egungo Sakana erdialdeko hainbat toponimo nagusi ageri dira liburuan, hala nola: *Etxarri Aranatz, Ergoiena, Arañaz, Araña, Elkorri, Lizarraga, Dorrao, Unanu, Arbizu, Lakuntza, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Urbasa, Andia...*

Eta bestelakoak ere, aurreko herrietakoen eremuetakoak direnak ere bai: *Vitoria* edo *Victoria, Ziscarte, Mundiñano, Acarrunza, Zabalarte, Aiztondoa, Arnaz, Soraberrieta, Sagarburua, Insuspe, Loinaz, Zuiarte, Sarrarte* eta *Ferdadia* Arbizukoak; *Alleko, Alziturrrieta* eta *Berrueta* Etxarri Aranazkoak; *Aizartea* Unanukoa; *Vidaul* Lakuntzakoak.

Baselizak, aldiz, Etxarri Aranazko eremuan izan direnetatik gehienak ageri dira izendaturik: *Santa Barbara, San Gregorio, San Adrian, Konzezio* eta *Zugarreta*. Egun, lehen erabat desgerturik dago eta, bigarrena, berriz, teilaturik gabe eta larrek zein sasiak janik. Beste hiru baselizak eraberriturik daude eta egoera onean. *San Adrian* eta *Zugarreta* herriarenak dira eta *Konzezio*, aldiz, inmatrikulazioak direla eta, artzapezpikutzarenak.

4.3. 1683ko eta 1697ko dokumentuetako izenak, 1694ko auzikoak eta XVII-XVIII mendetako eliza-fundazioetakoak

Ezinbestekoa aipatzea, zerrenda bietan emakume izenik ez dagoela eta, beraz, gizonek soilik osaturik izaten zirela orduko hartan eta beranduago ere herrietako auzo-bilerak eta batzarrak:

- 1683ko zerrenda (3. taula) (60 pertsona-izen, 15 ezberdin): Juanes (14); Martin (10); Miguel (8); Domingo (6); Fermin eta Esteban (4); Pedro (3); Gregorio; Juan eta Anton (2); eta behin baino ez Bartolome, Sebastian, Mario, Joseph eta Antonio.
- 1697ko zerrenda (2. taula) (87tik 22 ezberdin): Miguel eta Juanes (15); Martin (9); Domingo eta Fermin (6); Pedro (5); Esteban eta Garcia (4); Bartolome, Joseph, eta Anton (3); Gregorio, Fernando eta Agustin (2); eta behin baino ez Sebastian, Ignacio, Antonio, Andres, Bernardo, Gabriel, Lorenzo eta Marcos.

⁵⁹ *Biorrutsen* etxea dago egun.

- 1694ko auzia (3.3.4. puntua) (24tik 13 ezberdin): Pedro (4 aldiz); Garcia eta Juanes (3); Gabriel, Martin, María eta Luis (2); eta behin baino ez Domingo, Miguel, Catalina, Leonor, Margarita eta Fernando (eskribaua hauxe).
- 1627 (4. taula) eta 1797 (5. taula) urteen arteko 40 eliza-fundazioen (meza, erresponso, urteurren, kapilautza...) sortzaileen artean 21 izen ezberdin ageri dira eta horietatik soilik zortzi daude errepikaturik: Miguel, Maria eta Fermin (3 aldiz); eta Margarita, Esteban, Isabel, Juanes eta Domingo (2 aldiz). Gainerako 13ak, behin baino ez dira ageri: Bartholome, Magdalena, Cathalina, Marina, Antton, Martin, Inesa, Marcos, Pedro, Alonso, Clara, Anjela eta Luis.

5. ZENBAIT ONDORIO

Artikuluaren izenburuan bertan adierazten den moduan, hauexek nahasirik ageri badira ere, hiru atal edo gai nagusi ditu Etxarri Aranazko Klaberiako liburu honek: eliza-fundazioak (kapilautza, urteurren eta gainerakoak), hamarrenari buruzko xehetasunak eta herriaren sorrera-dokumentuaren kopia. Hirurak ala hirurak, zalantzarik batere gabe, Erdi Aroan sorturiko Patronatoaren antolakuntzaren isla edo erakusgarri, Aro Moderno osoan indarrean izan zen egitura juridiko-ekonomikoaren oinarri eta gizartearen egoeraren erakusgarri. Batak, sorrera-dokumentuak, legezketasuna (berme juridikoa) ematen zion egiturari; eta beste biek, eliza-fundazioak eta hamarrenaren sistemak, egituraren burutzea (berme ekonomiko-soziala). Arañazkoan esan daiteke mendeetan iraun zuela aipatu egiturak Klaberiako liburu honetan ikusten den moduan. Patronatoa, beraz, Elena Catalanek (2004) dioen moduan, Erdi Aroko gizartearen oinarrizko osagaia da eta erabat loturik dago Purgatorioaren teoriaren ezarpenarekin eta honek suposatzen duen limosna, errezu eta donazioen gaitasun arima-arazlearekin. Arima herratu edo Purgatoriokoak salbatzeko balioa aitortzen zitzaien, orduan, eliza-fundazioei. Historialari berak ere (2013), egitura juridiko-ekonomiko honi (botere politikoaren eta erlijiosoaren uztarketa) erreparatzen dio, bereziki Duero eta Ebro ibaietatik iparraldera diren lurraldeetan. Lurralde horietan, musulmanen ondorengo apezpiku-egoitzen errestituzioarekin abiatutik, harreman feudalen bitartez gobernatutako Elizatik erregearen eta apezpikuaren kontrolpeko Eliza hierarkizatura eman zen aldaketa. Orduantxe erabakiko zen hamarrenaren banaketa parrokia ezberdinetan, betiere erregearen, apezpikuaren, monasterioen edo tokian tokiko jauntxoaren interesen arabera izanik huraxe.

Hala ere, gurean, lehentxeago esaten nuen moduan, badirudi egiturak ez zuela mendeetan aldaketa askorik izan eta Elena Catalanek (2013), aldiz, bai ikusi zituen aldaketak toki eta memento batzuetatik beste batzuetara, baita elizbarrutiaren beraren barnean ere. Catalanek dionez, ez zen hamarrenaren banaketa estandarizaturik egon eta nekazaritzako zein abelazkuntzako ekoizpenarekiko menpekotasunak behartu zuen Eliza egoera edo koiuntura ekonomiko ezberdinetara moldatzen.

Etxarri Aranazko Klaberiako Liburua aztertu ondoren, beste edozer baino lehen, erabat argi geratzen da oso modu zehatzean zegoela antolatuta gizartea Aranazko Haranean, XIV. mendetik hasi eta XIX.eraingo gutxienik, Elizaren eta Monarkiaren

uztarketa antolakuntza-iturri izanik. Aipatu gizartea bi estamendutan bereizita ageri zaigu:

- Pribilegiatuen estamentua. Elizaren eta Monarkiaren ordezkariak dira talde honetako onuradun nagusiak eta, atzetik oso gertu, hauen mesedetan dihardutenak: abade, bikario, apez, klabero, notario, eskribau... Administrazio nagusia haiek eta «karrera funtzionario» azken hauek. Batzuk eta besteak onuradun nagusiak eta hauek guztiak orduko «industriaren» bi adarretatik bizi ziren: alde batetik, lurrekotik, nekazaritzatik eta abeltzaintzatik, hots; eta beste aldetik, «zerukotik», hau da, kapilautzetatik eta eliza fundazioetatik ere bai, bistan da.

«Lurreko industria» emankorra zen oso eta ederki ziurtatua zuten haren etekina (uzta garaia ona edo txarra izan, handiagoa edo txikiagoa): *lezta, peage, cena, pimienta, portazgo...* alde batetik; eta *hamarrenak* eta *primiziak*, bestetik.

Eta «zeruko industria» ere, ez zen inondik inora ere makala, artikulua honetan jaso ditudan zerrendetan ikus daitekeen moduan: *meza abestuiak, errezatuak, kapilautzak, erresponsoak, errosarioak, urteurrenak, bederatzirenenak...* Horiek guztiak diru kopuru handiak uzten zizkieten pribilegiatuei, elizari bereziki, eta Macía Ferrández historialariak (1981) dioen moduan, garaiko banku-lanak egitera bultzatu zituen kasu askotan:

De otro lado la inmovilización de ese capital no podía dejar de suscitar consecuencias sociales y económicas, en modo alguno desdeñables. Entre otras, el incremento del patrimonio eclesial rural y urbano, así como el control de una parte considerable del numerario circulante, hasta el punto de convertirse en estamento eclesiástico como tal, y sus individuos considerados aisladamente, en piezas importantes en el incipiente sistema crediticio de la época.

- Herri xehea. Populazioaren gehiengo zabala, nekazari eta abeltzain horietako gehienak. «Lurreko industria»-ren ekoizleak dira, orduko gizartearen euskarri ekonomikoa. Elizaren eta monarkiaren zerbitzari eta sostengua ere bai, ordaintzen zituzten zergen bidez. Eta, hala ere, gehiengoek ez zuten, seguru asko (1683ko eta 1697ko kontzejukide-zerrendak askoz ere handiagoak dira eliza-fundazioak egiten zituztenenak baino), haien arima «zeruko industria»-ren bidea profitatuz salbatzeko aukerarik izanen, pribilegiatuen estamendukoek egiten zuten moduan. Aukera gutxiago zituzten haien arimak arazteko, ezin zutelako kapilautzarik sortu edo donazio aipagarriarik egin. Hala ere, Elizak ez zien uko egiten donazio xumeei ere, eta, modu honetan, gizarteko zein tokitan zegoen persona bakoitza berretsirik geratzen zen.

Macía Ferrándezek (1981) garaiko «zeruko industria» horren testigantza eskaintzen digu. Erlijioa, bizitzako egoera okerren aurkako babes moduan, infernurako bidetik ihes egiteko erremedio gisa edo zerurakoa erdiesteko erabiltzen zen. Eta zentzu honetan ulertu behar dira eliza-fundazioak. Historialari honek, Isla aitaren ondorengo aipu erabat adierazgarria eskaintzen digu: «los sacerdotes seculares multiplican sus esfuerzos para conseguir legados importantes, a la cabecera de los moribundos; a estos fundadores les mueve los estímulos de piedad, ora los consejos de superstición, ora los remordimientos de avaricia».

Eta «zeruko industria» horren ezinbesteko euskarri izan zen ondorio hauen hasieran aipatzen nuen «Purgatorioaren teoria». Honen bitartez «azken epaiketaren»-ren aurretiko maite-damu edo kontrizioa ahalbidetzen da, Elizari egindako donazio, meza eta abarrekin, honek bitartekari lanak eginez Purgatorioko egonaldia gutxitzeko. Horrela, Elizak gizarte egitura piramidala zuzenetsi edo justifikatu eta zerukoarekin uztartzen du. Jainkoak aukeratutako erregeak egitura iraunarazten du eta elizako kideek, kleroak, zeruko eta lurreko egituren arteko zubi-lana burutzen dute, bere medioz baino ezin baita betegintzarre edo perfektzioa erdietsi.

Mendeetako gizarte antolakuntza honek, zalantzarik gabe, arrastoak utzi behar zituen Etxarri Aranazko paisaia eta utzi ditu, bai ikuspegikoan, bai paisaia toponimikoan. Lehenari dagokionez, eta Santa Maria eliza nagusiaz gain, hortxe dira, oraindik ikusgai, San Adrian, Konzezio, San Gregorio eta Zugarretako ermitak. Eta Carasatorrek gogoratzen duen moduan (1993, 18-19. orr.), toponimian geratu zaizkigu beste hainbat ermiten aztarnak: San Miguel (*Fandalamikel*), Santa Barbara, Santa Quiriz (*Santakitz*) eta Santa Trinitatea (*Santatritei*). Carasatorrek San Marcos ere aipatzen du.

6. ERREFERENTZIAK

- AGN= Archivo General de Navarra. (1388). Caja 98, n.º 56, I.
- Arroyo Vozmediano, J. L. (2007). Fundaciones testamentarias de Damiana López de Murillas, *Kalakorikos*, 12, 383-393.
- Carasatorre Vidaurre, R. (1993). *Barranca-Burunda*. Gráficas Pamplona.
- Catalán Martínez, E. (2004). Derecho de patronato y régimen benefical de la Iglesia española en la Edad Moderna, *Hispania Sacra*, 56, 135-167.
- Catalán Martínez, E. (2013). Parroquias y curas en el obispado de Calahorra y La Calzada (siglos XI-XVI). *Obradoiro de Historia Moderna*, 22, 35-62.
- Comprende la copia de sentencia en la cual el Tribunal acordó la disolución de la Comunidad de Arañaz*. (1874). Inventario correspondiente a Villa y Valle (leg. 32, doc. 31). Etxarri Aranazko Udal Artxiboa.
- Erdozia Mauleon, J. L. (2017). Auzia aranatzan XVI. mendean. *Príncipe de Viana*, 269, 865-902.
- Euskaltzaindia. (2016). *Euskaltzaindiaren hiztegia, I-Z*. Andoain: Euskaltzaindia, BBK.
- Fortún Pérez de Ciriza, L. J. (1985). Colección de «fueros menores» de Navarra y otros privilegios locales (III). *Príncipe de Viana*, 175, 361-447.
- García Sanz, A. (1961). El Censal. *Revista de la Sociedad Castellonense de Cultura*, 32, 281-305.
- Goñi Gaztambide, J. (2008). Episcopado y cabildo. *Príncipe de Viana*, 245, 575-614.
- Idoate, F. (1956). *Rincones de la historia de Navarra, II*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana.
- Jiménez Gutiérrez, F. J. (1992). El cabildo pamplonés en el siglo XIV. Un análisis prosopográfico. *Príncipe de Viana*, 196, 391-408.
- Jimeno Jurío, J. M. (1970). El libro rubro de Iranzu. *Príncipe de Viana*, 120-121, 221-270.

- Jusú Simonena, C. (coord.). (1994). *La catedral de Pamplona I*. Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra, Gobierno de Navarra.
- Libro de la Claveria de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades.*(Urte askotan osatua). (419-1 zkia). Etxarri Aranazko Udal Artxiboa.
- Macía Ferrández M. I. (1981). *Las pías fundaciones testamentarias en el siglo XVIII. Aproximación al caso de Orihuela (Alicante)*,(Lizentziatura laneko laburpena). Murtziako Unibertsitatea.
- RAE = Real Academia Española. (d. g.). Diccionario de la lengua española. Hemendik hartua <http://dle.rae.es/>
- Ruiz San Pedro, M. T. (1998). *Archivo General de Navarra (1349-1387) II. Documentación real de Carlos II (1362-1363)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 82).
- Sagaseta Ariztegui, M. A., Goñi Gaztambide, J. & Aldea Vaquero Q. (1992). Victoria-no Huici González de Villazón (1830-1938). *Fontes Linguae Vasconum*, 84, 196, 309-325.